



ZERAIN

urtekaria

2013

Mugi zaitez **Kutxabank** munduan



behar duzun guztia: www.kutxabank.es



kutxabank




Kaixo irakurle!

Urteroko legez, Andra Mari eta San Roke jaiekin batera urtekariaren 26. alea kalean da. 1988an hasitako bidean, zailtasunak zailtasun eta nekeak neke aurtengoan ere festetarako eskuartean dugu urtekaria.

Iaz 25. urteurrena ospatzeko hainbat berrikuntza sartu genituen: diseinua eguneratu genuen eta 25 urtean lehen aldiz ale guztia koloretan argitaratu genuen. Krisiak krisi, iazko berrikuntzei eusteko moduan izan gara aurtengoan ere eta pozik egoteko moduan gaude, Zerain bezalako herri txiki batean beste urte batez ere oso-osorik herritarrek egindako aldizkaria kaleratzea lortu baitugu.

Eguneroko historia idatzirik uzteko helburuarekin sortu zen urtekaria eta horretan jarraitzen dugu: edukiak prestatzen, gaiak lantzen, erredakzio lanak egiten, argazkiak ateratzen eta publizitate gestioa egiten. Herritarrok egiten dugu eta herriarena da urtekaria.

Eskerrik asko beraz, urtez urte, urtekari hau Andra Mari jaietarako kalean izan dadin lan egin duzuen guztioi, eta eskerrik asko baita ere diruz lagundu duzuenoi. Ea, bada, beste urte askoan ere urtekariarekin jarraitzeko modurik izaten dugun.





Elkarrizketa

ALFREDO MORAZA	6
----------------	---

Urteko ekintzak

EKINTZAK, BERRIKUNTZAK ETA AIPAGARRIAK	12
AUTOPISTA ELEKTRIKORIK EZ: HISTORIA PIXKA BAT	24
TOBERA MUSIKA-ESKOLA: 20 URTEKO IBILBIDEA ZERAINEN	26
TRIKITIXA ZERAINEN	28

Gure gaia

MUTILOA ETA ZERAIN ARTEKO HERRI MUGAK	29
---------------------------------------	----

Erreportajea

AXALKO BIZIKLETAK, MUNDUAN BAKARRAK	33
-------------------------------------	----

Kolaborazioak

ELIXABETE GARMENDIA: "ARKITEKTO GALDUAREN ETXE GALDUA"	37
JOXE MARI ETXALUZE: "BARBARI MENDIKO MINAK"	40
JOXE MARI ETXALUZE: "MARTIN ALUSTIZA" (BERTSOA)	45
ZERAIN DEZAGUN FUNDAZIOA: "ZERAINEN, BERTAKOA"	46
BASARTE GURASO ELKARTEA: "HAUR ETA GURASO TALDEA HANDITZEN!!"	48
ZERAINGO ESKOLAKO IRAKASLEAK: "ALIBABA ETA 40 LAPURRAK"	50
ION MUÑO: "LEHEN ERE BAZIREN LAPURRETAK ZERAINEN"	52

Gazteak sortzaile

IDAZLANA: "HERRI IKUSEZIN HARTAN"	53
ARTIKULUA: "GIZARTEAREN ERAGINA GUGAN"	54
IPUINA: "ERPURUTXO"	55
BERTSOAK: "ATEZ ATEKOA" - "ZERAINGO FESTAK"	56
DENBORAPASAK	57

Haurren txokoa

ASMAKIZUNAK ETA BERTSOA	58
-------------------------	----

BABESLEA



EGILEA

Oa Kultur Elkartea

AZALA

Joxe Mari Telleria

MAKETAZIOA ETA INPRIMAKETA

Antza komunikazio grafikoa

LAGUNTZAILEAK

Andoni Alustiza, Kontxi Errasti, Loli**Gonzalez, Aitziber Makatzaga, Miren****Makatzaga, Mariajexux Mendizabal,****Mikel Oria, Jone Oria eta Andoitz Telleria**

LEGE GORDAILUA

SS-724-1996

Arantzazu Muñoa

ALFREDO MORAZAHISTORIALARIA ETA ARKEOLOGOA,
SAN ADRIANGO IKERKETAREN
ZUZENDARIA**“San Adrian
erreferente izan
zen historiako
hainbat
momentutan”**

Aizkorri-Aratz Parke Naturalerako sarbidea egin nahian, Diputazioak bultzatuta, orain dela 5 urte hasi zen Aranzadi San Adriango tunelean ikerketak egiten. Bi astetan lana amaituta izango zutelakoan ekin zioten azterketari, baina uste ez bezalako emaitzak lortzen hasi ziren eta oraindik ikerketak irekita jarraitzen du: "Orain dela 11.000-12.000 urtetik hasi eta gaurdainoko aztarnak agertu dira oraingoz. Ezin dugu esan denbora horretan zehar segidan gizakia bertan egon denik, baina hainbat garai esanguratsutako aztarna nabarmenak daude", azaldu digu Alfredo Moraza arkeologo-historialariak eta San Adriango ikerketaren zuzendariak. Berarekin hitz egin dugu San Adrian inguruko azterketari buruz, kondairetan behin eta berriz entzundakoa edo ahoz iritsi zaiguna egia ote den jakiteko.

Noiztik ari zarete San Adrianen ikerketak egiten?

2008an hasi ginen, Foru Aldunditik ikerketa txiki bat bultzatu nahi zutela-eta. Kontuan izan behar da Aizkorri-Aratz Parte Naturalaren barruan gaudela. Gune hori, juxtuki, Partzonerikoa da. Eremu horretan Aizkorri-Aratzera sartzeko ate baten bila hasi ziren, jendea nolabait Parke Naturalera bideratzeko eta bertan informazio gune bat sortzeko. Arantzazu aldean bada sarrera bat, baina alderdi honetan ez. Hor bazen toki berezi bat, San Adriango edo Lizarrateko pasoa, gehien bat Aizkorrirra joateko sarrera bezala erabilia. Toki horrek izen handia zuen. Aspalitik esan izan da hor galtzada erromatarra zegoela, gatzelua,



eta gauza gehiago, baina jakin, ez genekien ezer. Gehiago zuen mitotik edo ahoz aho pasatzen joan den horretatik, datuekin frogatutako informaziotik baino. Bagenekien garai batean gaur egungo N-1en antzeko tokia izan zela, baina benetako frogarik ez genuen, hor inoiz ez zelako egin inolako ikerketa sakonik. Horixe zen gure abiapuntua.

Abiapuntu hori izanda, zein prozedura jarraitu duzue?

Diputazioak lehiaketa publikoa atera zuen azterketa orokor bat egiteko. Guk hasieratik lan-talde zabala osatu genuen: arkeologoak, geologoak, etnologoak, botanikoak, historialariak, etab. geunden taldean. Gure helburua erradiografia orokorra egitea zen, diziplina horiek guztiak kontuan hartuta. Hamar bat laguneko lan-taldea sortu genuen. Mitoak zioen hori edo ahoz aho pasatzen joan den hori egia ote zen jakin nahi genuen, benetan gune horretan zer zegoen eta zein egoeratan.

Zein da eremu horretan egin duzuen aurkikuntza nagusia?

Egia esan, sorpresa handia hartu dugu. 2008an hasi ginenean, ikerketa hau bi astetan amaituko genuela uste genuen, azal azalean agertuko zela agertu beharrekoa eta kito. Baina uste ez genuena gertatu zen. Gaur egun zoladuratik 3 metro eta erdi behera ari gara lurra ateratzen eta ikertzen, eta oraindik ez dugu bukatu.



Zerekin hartu duzue halako ezustekoa?

Ia guztia erekin. Eraitza oparoak ari gara jasotzen tuneleko ia gune guztietan. San Adrian erreferente izan zen historiako hainbat momentutan. Hala ere, azken aurkikuntza nagusia zera izan da, duela 11.000-12.000 urtetik bertan jendea bizi dela jakitea. Eta geroztik, aroz aro gizakiaren aztarnak jarraitu egiten du. Ia denetik aurkitu dugu tunel barruan: enterratzeko tokia, gaztelua, ermitak, bizitokiak, tailerrak... Beraz, hipotesi guztien arabera, garai batean bizitoki garrantzitsua zegoen bertan eta giza-talde nahiko handia bizi zen. Eta aztarna horien arrastoak aurre-historiatik hasi eta ia gaurdaino daude.

Lehen aztarnak beraz, orain dela 11.000-12.000 urtekoak dira?

Bai. Oso momentu berezia da hori. Wurm glaziazioa bukatzen denean klima aldatzen hasten da, epeltzen. Ez zen izango gaur egun hemen dugun klimaren modukoa, baizik eta orain Finlandian edo Siberian dutenaren antzekoa. Baina, hala ere, epeltze harekin hainbat mamut, hartz, errinozero, etab. desagertu egin ziren eta jendea goxoago bizitzen hasi zen. Eta garai horretakoak dira San Adrian inguruan aurkitu ditugun gizakiaren lehen aztarnak. Ziurrenik ez ziren urte osoan biziko bertan: neguan

"2008an ikerketarekin hasi ginenean bi astetan amaituko genuela uste genuen, baina guztiz kontrakoa gertatu da. Sekulako sorpresa hartu dugu"

kostaldean egongo ziren eta udan goialdean. Baina artean ehiztari-biltzaileak izango ziren. Oraindik nekazaritza eta abeltzaintza agertu gabe zeuden. Horiek dira momentuan aurkitu ditugun aztarnarik zaharrenak. Badakigu horren azpian arrastoek jarraitzen duela, baina noraino


iritsiko garen? ba, hori lurra atera eta aztertu arte ezin dugu jakin. Aurten ziurrenik beste zati bat induskatuko dugu eta historian beste koska bat atzera egin ahal izango dugu.

Oraindik ez dakizue ikerketak zenbateraino eman dezakeen?

Hala da, bai. Dena irekita dago. Duela 11.000-12.000 urtetik hasi eta gaurdainoko aztarnak agertu dira oraingoz. Ezin dugu esan denbora horretan zehar segidan gizakia hor egon denik, baina hainbat garai esanguratsutako aztarna nabarmenak daude: orain dela 11.000-12.000 urtekoak hasteko, Brontze Garaikoak (orain dela 3.500 urte) ere bai, eta baita Erdi Arokoak ere. Eta harrezkero, gaurdaino ia etenik gabe bizi izan da gizakia bertan.

Eta ikerketa horiek testuinguruan jarrita nolako balioa dute?

Orain dela 11.000-12.000 urteko ezagutzen diren aztarnategiak kostaldekoak dira (Ekain, Santimamiñe, Altxerri, etab.), baina



barnealdekorik ez zegoen orain arte. Beraz, ezagutzen den barrualdeko aztarnategi garrantzitsuenetako bat izango da. Horrelako indusketa bat egitea, tipula bat irekitzen joatea bezala da, eta San Adrianekin gertatu da tipula hori ukitu gabe zegoela, hau da, kapa guztiak osorik zeuden. Beraz, bere balioa hortxe hasten da, historian zeharreko ibilbide luze hori egiteko balio handia baitu. Hau da, ez du beste inpakturik jasan eta zegoen bezala mantendu da.

Erdi Aroan hektarea bateko gotorleku bat izango zela esan izan duzue.

Erdi Aroan bada San Adrianen garrantzia handia hartzen duen elementu bat: gaztelua. Eta baditugu datuak XI. mendean hor gaztelu bat egongo zela pentsarazten digutenak. Garai hartan Nafarroako Erreinuaren eta Gaztelakoaren artean liskarrak izan ziren. Gaztelu horiek erreinu bakoitzaren lur eremua noraino iristen zen markatzeko balio zuten. 1200. urtetik aurrera, Gipuzkoa eta Araba Gaztelak konkistatu ostean, gaztelu hori ziurrenik Gaztelako Erresumaren eskuetan egongo zen eta bertatik, Nafarroa zapaldu beharrik gabe, Araba eta Gipuzkoa lotzen zituen bidea pasako zen.

Brontze Aroa ere aipatu duzu. Garai hartako zein aztarna aurkitu dituzue?

Garai horretako pitxar ia osoak agertu dira. Azterketak erakutsi du Brontze Aroan ere, orain 11.000 urte bezala, San Adrianen bizitoki handia zegoela, ezin dugu esan zenbat jende biziko zen juxtu, baina ikusten da garai horretan tunelaren parte guztietan

"Ezagutzen dugun orain dela 11.000-12.000 urteko barrualdeko aztarnategi garrantzitsuenetako baten aurrean gaude"

(behealdean, erdialdean, goialdean...) jendea bizi zela. Tunel osoa okupatuta egongo zen eta hor etxebizitzak egongo ziren. Bertan biziko ziren, ezin dugu esan urte osoan, baina bai ziurrenik denboraldi luzean. Hauek jada nekazariak ziren eta

bereazienda izango zuten inguruan. Horrela erakutsi du ikerketak, nahiz eta oraindik animalien hezurak aztertzen ari garen.

Eta erromatarren aztarnarik bada?

Harritzen gaitu, baina momentuz ez dugu topatu. Hala ere, lehen esan bezala, ez dugu eremu guztia induskatu. Guk zati batzuk bakarrik aztertu ditugu eta horietan ez da ezer agertu, baina logikak dio erromatarren garaiko bizitokiren baten aztarnak azaltzea litzatekeela normalena. Galtzadak adibidez, erromatar abizena du, garai batean gauza zaharrei abizen hori jartzen zitzaielako (nork egina zen azalpenik eman ezin zieten gauzei erromatar abizena jartzen zieten), baina berez Erdi Aroan eraikia da. Erdi Arotik aurrera Gaztelako Erresumak bultzatu zuen galtzada hori Araba eta Gipuzkoaren arteko komunikazioa indartzeko.

Galtzada hori zen Araba eta Gipuzkoaren arteko bide nagusia?

Ez zen sarrera nagusia. Gipuzkoako sarrera nagusia beti Leintz Gatzagakoa izan zen, logika osoarekin. 300-400 metro altuagoa da San Adrian eta horrek esan nahi du neguan hilabete batzuetan itxita egongo zela. Mantentze-lan aldetik ere, San Adriango bidea askoz ere zailagoa zen, nahiz eta motzagoa izan. Eta motzagoa zenez, hortik pasatzen zen postaren bidea,



baina errege bidea eta jende arruntarena Leintz Gatzagatik zihoan.

San Adrianen inguruko aipamenak badira.

Bai. Bide nagusia Leintz Gatzagakoa izan arren, XVII. mendera arte jende asko pasa zen San Adriandik ere eta jende hark bere idatziak utzi zituen pasabide horri buruz. Jende hari sekulako zirrara eragiten zion San Adrianek. Normalki lautadatik etorritako jendea izaten zen, bai Gaztelatik edo bai Europatik etorria, eta bere bidean lehen koska edo arazoa hementxe izaten zuen, San Adrianen. Idatzietan aipatzen dira "toki altuena", "leku okerrera", "zerua ukitzeko tokia" eta antzekoak. Bertan bazen ostatu bat ere oso fama txarra zuena. Garestia zela esaten zuten, baina besterik ez zegoenez, ba, bertatik pasa behar. Ordainleku bat ere sortu zuten, tunela bera mantentzeko seguruenik. Ermita ere bazen, azken batean, tripa ez ezik izpiritua ere bete beharko zen, beldurrak uxatzeko. Baina ez naiz ari gaur ikusten dugun ermitaz. Gaurkoa 1893koa da. Beste aldean zegoen ermitatxo txiki, xume batez ari naiz. Horrez gain, lotako tokia, zaldiei jana emateko tokia, eta antzekoak ere baziren. Gaur egungo errepideko zerbitzugune baten modukoa izango zen.

Aurkitu duzuen bitxikeriarik handiena zein da?

Guztiaren artean osatzen da bitxikeriarik handiena. Azken finean, puzzle handi bat bezalakoa da. Eta hor piezatxoak ari gara lortzen. Ez da garai bat bestea baino garrantzitsuagoa, orokortasuna da indarra eta balioa ematen diona. Guk, gaur egun tuneletik pasatzen garenean, paretak hutsik ikusten ditugu, baina orain dela 300 urte juxtu kontrakoa izango zen. Ez

"30 urterako lana badago hor gutxienez. Ikerketa erabat irekita dago eta ezin dugu esan noraino irits gaitzkeen"

genuen paretarik ikusiko, hor tailerrak, errementariak, lo-lekuak, jantokiak eta beste egongo ziren, ia dena okupatuta egongo zen. Bi sarrerak ere itxita egongo ziren. Gipuzkoako lehenengo grabatua adibidez, 1567koa, San Adriangoa da, eta

hori ez da kasualitatea izango, zerbait esan nahiko du.

Aurrera begira zein helburu dituzue San Adriango eremu horretarako?

Diputaziotik bultzatzen ari diren errekonstruzio proiektua daukagu orain eskuartean. Eremu horretako azken biztanleak mikelleteak izan ziren. 1913an su hartu zuen etxeak eta utzi egin behar izan zuten. Momentu hartatik gaurdaino apenas ukitu den eremu hori. Hondamendia handia izan da, eta beraz, zenbait tokitan hainbat lan egin behar izan dira eremu hori berreskuratzeke. Lanak bi helbururekin egin dira: batetik, eremu horren erradiografia egiteko, bere balioa neurtzeko, eta bide batez, bertatik pasatzen den jendeak hobeto uler dezan garai batean hor zer zegoen; eta bestetik, arrazoi praktikoengatik, hau da, pasoa erosoago egiteko. 2008an hasi ginen ikerketarekin, baina 5 urterako ez, baizik eta 30 urterako lana dago hor. Azken batean, guztiaren zenbateko oso txikia aztertu dugu. Aurtengo udan gazteekin indusketa saio bat egiteko asmoa dugu. Puzzle horren beste pieza bat aurkitu nahi dugu. Hori da helburua epe motzera. Eusko Jaurlaritzan, Foru Aldundian eta Partzonerian ulertu dute proiektua eta balio handia eman diote. Bestetik, Lanbidek ere parte hartu du proiektuan. Testuingurua onena izan ez arren, ekarpen ekonomiko garrantzitsua egingo dute eta inplikazio hori eskertzekoa da.

SAN ADRIANDIK PASATAKO JENDEAREN TESTIGANTZAK

1502. urtea - Antoine de Lalaing

“Le lundi, vint Monseigneur quatre lieues, et logea à Segura, où plusieurs compagnons vinrent pareillement au-devant de luy. Ceste ville est au pied de la Montaigne Saint-Adryen, sur laquelle, mauaise et dangereuse au passer, toujours chargié de nèges, a une porte o où il faut nécessairement passer pour aller à Saint-Jacques, à l'honneur de qui y a une Chapelle soubz la dicte porte, déclarant que c'est le chemin illec. Peu de gens garderoient ce passage, qui est la principale force et clef de ce pays contre le pays de Gascogne”.

El lunes hizo Monseñor (Felipe el Hermoso) cuatro leguas y pernoctó en Segura, a donde muchos acompañantes llegaron también antes que él. Esta villa está al pie de la montaña de San Adrián, mala y peligrosa, siempre cubierta de nieves; en su cumbre hay un túnel por donde es fuerza pasar para ir a Santiago, en cuyo honor hay en el interior de dicho túnel una capilla, por lo que se sabe que aquél es el camino. Poca gente bastaría para guardar este paso, que es la fuerza y llave principal de esta región contra el país de Gascuña

ITURRIA: SANTOYO, J.C. (1972): Viajeros por Alava (Siglos XV a XVIII). Biblioteca alavesa Luis de Ajuria 6.zenb. Caja de Ahorros Municipal de la Ciudad de Vitoria, Vitoria-Gasteiz, 53-56, 229-231 orr.

1572. urtea - Giovanni Battista Venturino

“Lunedì li 21 si ascese il difficile sassoso Porto o monte di Sto. Adr° per spatio d'una bona lega in cima del quale, però doppo il principio d'una simile discesa, si trovò una grotta, per la quale è forza passare, stretta, non più alta che quanto vi va un huomo à cavallo, oscura et spaventevole. Qui è una Cappelletta con l'immagine di santo Adriano, da cui il Porto presse nome, dicendosi che venendo egli di Spagna ò Francia fece miracolosamente aprir quel Monte in quel luoco prima inaccessibile, et impenetrabile, et morì poi detto Santo in Francia, dove fù sepolito non sò in qual parte.

Vi è anche una casetta dove sua famiglia stà un Alcalde à guardia di aquel passo con buono stipendio: al piede di questa discesa si trovò Segama aldea di fuochi 150”.

El día 21, lunes, subimos al difícil y pedregoso Puerto o monte de San Adrián por espacio de una buena legua. En lo alto, aunque después de haber comenzado el descenso, encontramos una gruta por la que es preciso pasar, estrecha y no más alta que un hombre a caballo, oscura y espantosa. Hay allí una capillita con la imagen de San Adrián, de quien toma el nombre el puerto; cuentan que de camino a España o Francia hizo que en el aquel lugar se abriera milagrosamente el monte, que antes resultaba inaccesible e impenetrable; murió este Santo en Francia, y allí fue enterrado, aunque desconozco en qué lugar.



Gipuzkoako 1. grabatua. 1567, Giorgio Haufnaglio.



1946ko argazkia.



También hay una casa pequeña donde reside un alcalde con su familia; su deber es guardar el paso, y recibe buena paga. Al pie del monte encontramos Cegama, aldea de 250 hogares.

ITURRIA: SANTOYO, J.C. (1972): Viajeros por Alava (Siglos XV a XVIII). Biblioteca alavesa Luis de Ajuria 6.zenb. Caja de Ahorros Municipal de la Ciudad de Vitoria, Vitoria-Gasteiz, 53-56, 229-231 orr.

1736 Diputación de Gipuzkoa

El Puerto de San Adrián

“era preziso pasar una peña oradada donde apenas cavia un hombre a cavallo y los arrieros que conducían cargas de bolumen considerable se vehian precisados a descargarlas por no caver por el agujero de la citada peña, y necesitando remedio tan penoso camino ...con la adbertencia de que para la libertad del paso de los viandantes que han de pasar asi con carretas y coches sera necesario el que se traslade a la entrada vasa el portal de la hermita de San Adrian que se halla vazo del dicho arco”.

ITURRIA: ACHON INSAUSTI, J.A. (1998): Historia de las Vías de Comunicación en Gipuzkoa. 2.- Edad Moderna (1500-1833). Gipuzkoako Foru Aldundia, 73. or. (AGG. JD-IM. 2-7-70 -tik aterea).

1754 Padre Manuel Larramendi

“Leizarrate, o puerto de San Adrián, aguas vertientes hacia Guipúzcoa: es de jurisdicción de algunos lugares de Gui-

púzcoa, por esta parte, y de Alava por la otra. En lo alto está la Peña Horadada, muy nombrada en las historias, por donde se pasa de Alava a Guipúzcoa, y dentro está la ermita de San Adrián y la venta. Cuando llueve en la cumbre, las aguas se dividen, y unas van al Mediterráneo, bajando a Alava, y otras va al Océano por Guipúzcoa. Desde la cima de esta montaña dicen Mariana y otros que se ven ambos mares, Océano y Mediterráneo. Quise hacer por mí esta observación. Subí hasta lo más alto del camino, y viendo que faltaba mucho que trepar hasta los peñascos eminentes que hay en la cima, me desanimé, de cansado, y lo dejé. Hablando de este monte dice Murillo que hay en él una cueva o camino subterráneo por donde se pasa a Vizcaya a Navarra y de España a Francia. Explicación por cierto muy ridícula y falsa. Ese camino es la Peña Horadada, que a lo más tendrá sesenta u ochenta pasos desde el un boquerón al otro. No es subterráneo, sino sobreterráneo y muy elevado de la tierra, entrepeñado u horadado en peña viva. Por él no se pasa de Vizcaya a Navarra, que es desatino; de una parte de Alava se pasa primero a Guipúzcoa y luego a Navarra. El guipuzcoano pasa de España a Francia, y no por el camino de San Adrián, que deja muy atrás; y en ese mal modo de hablar lo mismo se pasa por San Adrián de España a Flandes y Alemania que de España a Francia”.

ITURRIA: LARRAMENDI, M. (1982): Corografía de Guipúzcoa. 50. or.

Ekintzak





FESTAK

la ohartu ere egin gabe iritsi eta pasa zitzaizkigun iazko Andra Mari jaiak, giro bikainean eguraldiaren laguntzarekin.

Festei hasiera emateko, herritarren III. Pilota txapelketa finalurrekoak eta ohiko gibel jatea izan genituen iluntzean.

Andra Mari bezperan, goiz eta arratsalde partean, haurrak izan ziren protagonista puzgarri, jolas eta beste hainbat ekintzetan murgildurik. Eguerdian, "Elena Mendizabal oroimena" Goi-koetxerako II. Igoera burutu zen. Iluntzearekin batera, Liztormendi elkarteko sozio fundatzaileen omenez egindako pregoiaren ondoren, sagardo edateari hasiera eman zitzaion txekorraren pintxoekin lagunduta.

Andra Mari egunean eguzkia irtetzerako txistulariak giroa alaitzen hasi ziren. Jarraian, meza nagusia, bolatea eta herritarren III. Pilota txapelketako finala eta txakolin dastaketa egin ziren. Arratsaldean herri kirolak eta dantza txapelketa izan ziren. Gauean berriz, mozorroek hartu zuten lekukoa.

San Roke egunean herriko agintariek dantza soka eskaini zuten meza nagusiaren ostean. Agintarien erakustaldia amaitzean, herriko artzainen gazta eta ardoa dastatzeko aukera izan zen. Herriko gaztetxoaren arteko pilota partiden ondoren, urtero legezen herri afariari eman genion txanda. Afal ondoren asto-karrera izan zen bertaratu zirenentzat.

Abuztuaren 17an, herria betiko itxurara itzultzeko, herri garbiketa egin genuen, afari on batekin lagundurik Andra Mari jaiei agur esanez.



PEREGRINAZIOA

Urtero lege, irailaren 3an Arantzazurako erromesaldia burutu zen. Ausartenak plazatik abiatu ziren oinez, beste batzuk berriz Aldaolatik abiatu ziren bertara kotoxe zein mini-busean gerturatuta. Fondan bazkari ederra egin ostean Arantzazurako bidea hartu zuten erromesek. Fraideen ongietorriaren ondoren, autobusez itzuli ziren herrira.



ARTZAIEN TXABOLARA IRTEERA

Jon eta Martinaren artzain txabolara bisita egin zen irailaren 8an "gazta eta sargardoaren mendia" ekimenaren barruan. Hainbat herritar joan ziren bisitan egu-



raldia lagun, eta bazkal ondoren giroa alaituz herriko trikitilariak aritu ziren. Egun bikaina pasa ondoren autobusez itzuli ziren eguzkia hartuta.

AZOKA EKOLOGIKOA ETA HITZALDIA

Azoka ekologikoa ospatu zen irailaren 16an, plaza nekazarien postuekin erabat betez. Urteroko gisan, sagar muztioa dastatzeko, lixiba egiten ikasteko eta gailetak egiteko aukera izan ziren. Nobedade bezala, Pasaiaiko Albaola elkarteak pare bat itsasontzi ekarri zituen, gerturatu zirenen arreta piztuz. Arratsaldean aizkolarien eta txingalarien txanda heldu zen Xapre eta

Furrielaren laguntzarekin. Bestalde, irailaren 18an, fruta arbolei buruzko hitzaldi interesgarria izan zen kultur etxean Xabi Akizuren eskutik.



KULTUR ASTEA

Urriaren 20tik 27ra kultur astea ospatu zen hainbat ekintza eginez, hala nola, Basazabalera bisita, eskola txikiei buruzko bideo emanaldia, jubilatuen eguna, hitzaldiak, haurren marrazki rallya eta babarrun jana Arrabots taldearekin giroturik. Iluntze horretan bertan, III. Tortilla txapelketak hartu zuen txanda eta giro ezin hobean amaitu zen 2012ko astea.



Aranburu Harategia

Kale Nagusia, 34
20214 Segura
Tel: 943 801 014


JUBILATUEN EGUNA

Urteroko ohiturari jarraituz, aurtengoan ere, jubilatuen eguna ospatu dute Zeraingo jubilatuek. Goizeko mezaren ondoren, Ostatun bazkari eder bat egin zuten bertsolarien umorea lagun zutelarik. Egun ederra pasatzeko aukera izan zuten.



NER EGUNA

Ampo eta beste hainbat kooperatibetako kideek Ner eguna ospatu zuten irailaren 22an. Ekintza ezberdinak egin zituzten egunean zehar, esaterako frontoian bazkaria eta umeentzako pailazoak. Giro ezin hobean ospatu zuten eta bertako ardura-dunek esker bero bat eskaini zieten auzolanean ibili ziren herritarrei.



HERRI FESTA

Irailaren 29an, herri festa antolatu zuten Liztormendi elkartearen 50. urteurrena eta Oa kultur elkartearen 25. urteurrena ospatzeko asmoz. Goizean herritarrentzako bola txapelketa izan zen eta kantu poteoarekin frontoian egin zen bazkarira gerturatu ziren herritarrek. Bazkal ondoren bertsolarien txanda izan zen eta trikitilarien laguntzarekin festak berandu arte iraun zuen. Zorionak bi elkartei!

NOLA ETENGABE EGOKITU ETA BERRITU ZERAIN

Hainbat herritar, azaroaren 9 arratsaldean eta 10 goizean elizan elkartu ziren Zerain nola etengabe berritu eta egokitu eztabaidatzeko. Lan horietan aritzen diren profesionalak gidatuta burutu zen ekintza eta ezohiko bide bat jarraituz herritarrek zer sendotu behar den azaldu zuten.



SANTA ZEILIA

Uharka abesbatzako kideek ezin hobeto ospatu zuten Santa Zeilía eguna azaroaren 23an kantu batean. Herriko tabernetan giro bikaina jarri ondoren afari itzela egin zuten musika giroan.



BARBARIN ERE LINEAREN AURKA

Goi tentsioko linea dela eta, topografoak ibili ziren Barbariko zelaietan zehar linearen posteak non jarri aurreikusten. Hori dela eta abenduaren lehen egunean, mendi martxa egin zuten hainbat herritarrek, proiektuaren aurkakotasuna adierazteko.



Etxaide Eraikuntzak, S.A.

Araba etorbidea, 5. blokea

20400 Tolosa

Tel: 943 653 186

GABONAK

Ohiturari jarraituz, herrian zehar bi talde ibili ziren etxez etxe kantari. Nagusiek 1.936 euro bildu eta erdia kultur etxerako eta beste erdia Caritasi eman zioten. Bestetik, haurrak ibili ziren eta bildutako 1.200 euroak El Salvadorgo San Diegito eskolara bidali zituzten. Iluntzean berriz, Olentzeroren bisita izan genuen asto eta guzti eta herriko haur txintxoentzat opariak ekarri zituen.



HEZEGUNEEI BURUZKO EKINTZAK

Azken bi urte hauetan zehar, Arantzadi Zientzia Elkarteko Botanika eta Herpetologia saileko kideek Zeraingo Lasurtegi inguruko hezeguneetan hainbat ikerketa egin dituzte. Hori dela eta, urtarrilaren 31n hitzaldia eskaini zuten Arantzadiko hainbat kidek. Otsailaren 2an aldiz, bertara joan ziren bisitan, Arantzadikoek lagundurik.



TUTEA ETA MUSA

Ohiturari jarraituz, aurtengoan ere Tute eta Mus txapelketak jokatu dira Liztormendi elkartearen. Lehena, urtarrilaren 26an izan zen eta Koldo eta Iban Aizpeolea herritarrek nagusitu ziren segurraren aurka. Bigarrena aldiz, otsailaren 9an hartu zuen txanda eta tutean ez bezala, zegamarrentzat izan zen txapela eta bigarren postua.



SAN BLAS EGUNA

Urteroko gisan, otsailaren 3an, hainbat fededun Burgomendiko San Blas ermitara gerturatu zen meza entzun eta jana-riak bedeinkatzera. Ondoren, soziedean hamaiketako ederra egin zuten.



*Gure eskerrik beroena
Oa Kultur Elkartearen izenean
Zerain Dezagun Fundazioari*

SANTA AGEDA BEZPERA

Santa Ageda bezperan, otsailaren 4an, Zeraingo talde bat santa eskean ibili zen etxez etxe kantu eta makila hotsez. Bil-dutako dirua Caritasentzat izan zen be-hartsuenei laguntzeko. Eguna behar be-zala amaitzeko, kantuan ibili zirenek afari eder bat egin zuten trikitilariak giroturik.



ESKOLAKO HAURREN INAUTERI FESTA

Otsailaren 12an eskolako haurrek ezin hobeto ospatu zituzten inauteriak. Gura-soei dantza saio bat eskaini ondoren, merendola ederra egin zuten Maixunen.



ZILARREZKO AIZKORA SAIOA

Otsailaren 9an, iluntzean, herriko pilo-talekuan Zilarrezko Aizkora saioa bu-rutu zen. Xabier Dorronsoro aguazila ere bertan aritu zen beste hainbat aiz-kolarirekin.



ENDIKA ALUSTIZAREN XX. MEMORIALA

Endika Alustizaren XX. eta azken memo-riala egin zen otsailaren 24an. Pedro Laz-kanorentzat izan zen garaipena Luis Aiz-peolea garaitu ondoren.



HERRI HONDAKINEN KUDEAKETA BERRIA

Hondakinekin dagoen arazoa konpondu nahian, kultur etxean bilera bat antolatu zen otsailaren 27an. Sasieta teknika-riek ahalik eta errefusa gutxien sortzeko bidea proposatu zuten: autokonposta. Horrez gain, konposta egiten ikasteko bi saio egin dira eta horretarako behar-reko ontziak doan banatu dira.



EMAKUMEEN EGUNEKO AFARIA

Giro ederrean ospatu zen aurten ere emakumearen nazioarteko eguna mar-txoaren 8an. Ostatur egindako afarian ez zen kantu eta musika faltarik izan.





Hobetzeko grina
Konpromisoa
Ahalegina
Ilusioa

AMPO
Commitment made of steel

... gure eragile

KORRIKA

Ttipi ttpa etorri zen aurten ere "Eman Euskara Elkarri" lelopean. Zeraindik gaueko 00:30etan pasa zen martxoaren 14an, jende ugari bilduaz. Honekin loturik, egunean bertan, dokumental bat eskaini zen kultur etxean euskarari buruz.



EUSKAL HERRIKO ITZULIA

Eguraldi kaxkarra egin bazuen ere, ziztu bizian pasatu ziren txirrindulariak apirilaren 5 eta 6an. Lehenengo egunean hiru aldiz igaro ziren Mutiloatik etorrita eta azken biran Barbari ere igo zuten. Bigarren egunean aldiz, erlojuaren aurka lehiatu ziren parte hartzaileak.



BISITA GEOLOGIKOA

Apirilaren 27an bisita geologikoa egin zen Burdinaren Mendira Hektor Fano geologoak gidatuta.

SAN ISIDRO

Baserritarren eguna maiatzaren 15ean izan arren, maiatzaren 18an bazkari goxo batekin ospatu zen azkeneko urteotan bezala.



HERRI MUGAK

Aurreko urteko maiatzaren 5ean hasitako bideari jarraituz, maiatzaren 25ean herri mugak ikusteko eta GPS bidez katalogatzeko 5. irteera egin zuten hainbat herritarrek.



HERRI GALDEKETA

Ekainaren 14, 15 eta 16an herri galdeketa egin zen Goi Tentsioko Linearen gainean herritarrek duten iritzia jakiteko. Liztormendi elkartearen egon zen botatzeko kutxa eta botoen %100ak ezezkoa bozkatu zuen.

SAN JOAN BEZPERA

Aspaldiko usadioei jarraituz, ekainaren 23an, San Joan Bezperan, suaz, dantzaz eta koruaz gozatzeko aukera izan zuten gerturatu zirenek. Ikuskizuna amaitzean, festa ondo amaitzeko afari merienda egin zen.



MUTILOARA X. JAITSIERA

Aurten ere herriko trikitilari eta txistularien laguntzarekin zeraindar ugari Mutiloara jaitsi ginen kalejiran, sagardo das-taketaz gozatzeraz.



BESTE EKINTZA BATZUK

Orain arte aipatutako ekintzez gain, urtean zehar beste hainbat ekintza ere egin dira: ingeleseko kurtsoak, haurrentzat denbora librearen udarako oporretan, dantza ikastaroa, bola-ikastaroa, photoshop kurtsoa... Urte guztian zehar izan da gustuko ekintzetan parte hartzeko aukera.



berrikuntzak

MEATEGIETAKO LANAK

Azken urteotan, Aizpeako meategietan, hainbat berrikuntza nabarmen egin dira: trenbidea, kable aereoak, biltegia garbitu, arkeologia lanak... Hau guztia egiteko, diru laguntza ezberdinak jaso ditu Zeraingo herriak, hala nola, Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Espainiako sustapen ministerioarenak. Honela, pixkanaka, herri ondarea berritzen eta handitzen ari gara.

Azken urtean egindako berrikuntzen artean, aipagarria da kable aereoak berreskuratu izana. Aizpeako burdinaren mendian aurrerapauso handia izan da eta ikusgarritasun nabarmena eman dio Aizpitta inguruari.

Aipagarriak

BIZTANLEAK

2012 urtearen amaieran, Zerainek 267 biztanle zituen. Urtean zehar 13 baja eta 9 alta izan arren, 2011n baino gehiago gara. Handitzen ari gara pixkanaka!

EZKONTZA

Laura Lee Dodgens Fosyth eta Israel Piqueras Torrente (2012/12/29)

JAIOTZAK

Elene
Iztueta Etxenausia

(2012/04/18)



Aner
Ormazabal Makatzaga

(2012/05/15)



Aimar
Ojanguren Katarain

(2012/08/15)



*Gure eskerrik beroena
Oa Kultur Elkartearen izenean
Zeraingo Udalari*

HERIOTZAK

Igarki Intxausti Aranburu (2012/01/13)
 Monica Muñoa Aizpeolea (2012/01/18)
 Maria Elena Mendizabal Elizegi (2012/01/29)
 Aniceto Alustiza Aroztegui (2012/02/22)
 Eulalia Cendoya Rodriguez (2012/08/15)
 Rosario Arantegi Basabe (2012/12/29)



2012-2013 IKASTURTEKO HAURRESKOLAKO HAURRAK

HAURRAK:

Lur Elorza Altuna, Oihan Telleria Otermin, Adei Larrea Salsamendi, Enara Aizpeolea Gereñu, Gabriel Carvalho Veiga, Elene Iztueta Etxenautia, Aner Ormazabal Makatzaga

HEZITZAILEAK:

Naiara Gabirondo Martiarena eta Ainize Lasa Oiartzabal



2012-1013 IKASTURTEKO HERRI-ESKOLAKO HAURRAK

IKASLEAK

Aizpea Elortza Elorza, Eki Iturrioz Sodupe, Ortzi Harreguy Urbisondo, Unai Eguren Retolaza, Uxue Saez de Egilaz Junquera, Eneritz Iztueta Etxeberria, Ekain Ansoleaga Centeno, Itxaso Lazkanoiturburu Alustiza, Nora Iztueta Etxeberria, Julen Aranburu Dorronsoro, Harriet Apaolaza Quintela, Arait Larrea Salsamendi, Ohian Ansoleaga Centeno, Irati Eguren Retolaza, Maddi Telleria Makatzaga, Kizkitza Garcia Araiztegi eta Amets Ojanguren Katarain

IRAKASLEAK

Miren Odriozola Gomez, Miren Makibar Aztiria, Alaitz Makatzaga Alustiza, Anastase Zatarain eta Euri Albizu Telleria



EcoXpert
Certified by GreenMark (GreenMark)




AIZKORPE
Elektrikariak - Koop. E.
www.aizkorpe.com ☎ 943 800 000

Eta guztietako argi lanak etxe eta lantegietan - Gai Tentsioa - Argiztapen Publikoa - Led argiztapena
 Domotika - Antena eta atzeak automatikoak - Telekomunikazioak - Sare Informatikoak - IP telefonía
 Nue entzunetakoak - Sarebide Kontrola - Alarma eta bideo begirantzia - Klimatizazioa - Telematizazioak
 Mantentze Lanak - Lehenagailu Salmenta - Iberdrolaren Kolaboratzaileak - Aholkularitza Energetikoa

Tfnoa: 943 800000
Faxa: 943 801826
www.aizkorpe.com

Goardiako Industriegunea 14 -1. Atzea
 20213 IDIAZABAL - Gipuzkoa
 aizkorpe@aizkorpe.com



ARTELAN GARRANTZITSUA HERRIRA

Alejandro Irureta tolosarrak 1895ean eginiko Zeraingo plazaren artelana herrira ekarri dute. Margolana Kutzaren ondarea izan arren, urte batzuetarako Zeraingo herriari utzi dio eta orain udaletxean dago ikusgai.



LUIZI UGARI NEGUAREN HASIERATIK

Udazkenean egindako euri jasa nahikoa izan arren, urte hasieran ere euri ugari egin du. Horren adibide garbia dira bide bazterretan izan diren luizi eta zuhaitz eroriak. Errekek ere izan dute zer esana, leku ugaritan gainezka egin baitute.



BASAZABAL SARITUA

Udazken honetan, Basazabalgo Jabierren gaztek bi sari berezi irabazi dituzte Euskal Herritik at. Austrian egin den sariketa batean lortu zuen saria lehenik, eta ondoren, Ingalaterrako beste sariketa batean hiru sari lortu ditu. Zorionak Basazabalgo familiari!

BASARTE GURASO ELKARTEA SARITUA

Ekainaren 2an Murgian egin zen Euskal Eskola publikoaren 22. jaia ospatu zuten. Bertan, Guraso elkartearen III. Hezkuntza jarduera onen lehiaketaren sariak banatu zituzten eta Basarte Guraso Elkarte saritua izan zen.

Zeraingo Guraso Elkarteak "Zeraingo haurren baratza ekologikoa" proiektuarekin accesit bat lortu zuen. Zorionak ikasle, irakasle eta gurasoei!



Anaiak Garajea

Mekanika eta ibilgailu-konponketa

Goardiko Industri poligonoa

20213 Idiazabal

Tel: 943 187 483

MADRILEN HERRI PROIEKTUA SARITU DUTE

Azaroaren 28an, "Zerain Paisaia Kulturala: herriaren oraina eta geroa" proiektua saritu zuen Madrilgo Conama Fundazioak. 5.000 biztanletik beherako herrien kategorian saritua izan da ondarea zaindu eta garapen turistikoa eta ekonomikoa loturik, azken urteotan egindako lanari esker.



IZAR FORONI SARITUA

Euskaltzaindiaren "Azkue" saria irabazi du 11-14 urte bitarteko mailan. "Gauza txikiak" narrazioa idatzi zuen Izarrek, eta bistan denez, ondo idatzi ere. Zorionak eta segi horrela!



Arakama

Sukalde gunea

Nafarroa etorbidea, 32

20200 Beasain

www.arakama.com

AUTOPISTA ELEKTRIKORIK EZ: HISTORIA PIXKA BAT

Enara Sodupe



Prentsaurrekoa Zeraingo Plazan

2011ko abuztua

Kontsultaren aurreko aurreproiektuaren aurkezpena

2011ko iraila

Plataformaren sorrera, 100 alegazioren aurkezpena

2011/2012

Proiektuaren kontrako 216 mozioren onarpena

2012 Apirilak 27

Goierriko Plataformaren osaketa



2012 maiatzak 27

Mendi Martxa, Zeraindik Mutiloa bidean



2012 Ekainak 23

San Juanak, proiektua sutara



2012 Urriak 6

Manifestazioa Ordizia-Beasain



2012 Abenduak 1

Mendi Irteera Barbarira.
Ondoren Dokumentala-
ren aurkezpena Mutiloan



Prentsaurrekoa Segurako Kultur Etxean



2013 Apirilak 27

Goi Tentsio Linearen Aurkako Eguna Seguran



2013 Martxoak 7

Itzalaldi Zaratatsua



2013 Maiatzak 7

Prentsaurrekoa (Gabiria, Mutiloa eta Zeraingo Herritarrek) He-
rri Galdeketa Donostiako Koldo Mitxelena

2013 Ekainak 8

Donostiako Atotxan Prentsaurrekoa



Ekainak 15-16

Herri Galdeketa.
Zerainen 155 bozka eta 155 Ez! %100 EZ

ZORIONAK!!
LAN EDERRA EGITEN ARI GARA ETA!

Orain 10.000 alegazioak baietz!

TOBERA Musika-eskola: 20 urteko ibilbidea Zerainen

Iker Gómez de Segura

TOBERA Musika-eskolako zuzendaria

Aurreko mendeko laurogeigarren hamarkadan bilatu behar dugu TOBERA Musika-eskolaren erroak aurkitzeko. Inguruan ez bezalako kezka deskubrituko dugu orduan Aizkorpe haraneko herrixketan musika-irakas-kuntza egituratua eta antolatua izatera iristeko.

Zegaman hasi zen ernatzen TOBERA, eta 1987/1988 ikasturtekoa izan zuen aurreneko kimua, aurreneko ikasturtea. Azkar egin zuen bere TOBERAk hazi-nahia, hedatzeko premia. Eta horretarako meritua aitortu, eta lur emankorra eskaini zioten laster inguruko herriek. Izan ere, goiz jabetu ziren guztiak lankidetzatik baino ezingo zuela herri bakoitzak musika-eskaintza oparoa izan. Horregatik, TOBERA Musika-eskolaren zazpigarren ikasturteak herri-maila gainditu eta, Zegamatik, Zerainera zabaltea ekarri zuen. 1993/1994 ikasturtean izan zen hori, eta Zerainen orduan oso aberatsa zen kultura-dinamika izan zuen habi musika-eskolaren abiatzeak bertan.

Zerainera zabaldu eta 3 urtera, 1996/1997 ikasturtean, Segurara iritsi ziren TOBERAren lan fina eta esperientzia. Tartean, Mutiloako neska-mutikoez ere sarbidea izan zuten musika-eskolan; hala, TOBERAren eragin-esparruaren mugek hedatze nabarmena izan zuten eskola sortu eta 10 urteko epean.

Hasieraz geroztik, bata bestearen atzetik, 26 kimu dira jada eskolak eman dituenak; 26 ikasturte emankor eta bete —horietatik 20 Zerainen—. Eta kontaezin artista, musikazale eta doinu.

Kasu guztietan, herritarren eta udal-agintarien aupada eta babesa ezinbestekoak izan zaizkio musika-eskolari bere lana has-teko eta horri jarraipena emateko. Gainera, gurasoen eta herritarren partaidetzari eman izan zaion garrantzia handia izan da beti TOBERAn, sorreratik bertatik, eta baita gaur egun ere. Eskolako Zuzendaritza-batzordean, adibidez, Zeraingo Udalak izendatutako zinegotziak hartzen du parte, eta, ikasleen gurasoen ordezkari, Zeraingo guraso bat da urtero kide. Azkenaldian, Zeraingo izen-ematea apala dela eta, guraso-ordezkaritza hau, Zeraingo eta Mutiloako gurasoek partekatu izan dute, eta bi herriak ordezkatzeko dituen gurasoa dago oraintxe TOBERAko Zuzendaritza-batzordean. 2013ko gurasoen Batzar Orokorra ere, esate baterako, Zerainen egin da.

Aizkorpeko herriek musikaren irakaskuntzarako plataforma komuna izateak, eskaintza indartzea eta hobetzea dakar berekin. Gaur egun, lau herrion proiektua bateratua izateak egiten du TOBERA musika-eskola sendoagoa eta osoagoa izatea, jatorrizko baloreei muzin egin gabe: gertutasuna, profesionaltasuna, partaidetza eta dinamikotasuna. Testuinguru geografiko hori da TOBERA Musika-eskola ahaltsu eta sinesgarri egiten duen errealitatea. TOBERAk eta bere hezkuntza-proiektuak nahiz barne-antolaketa orokorrak testuingurura moldatzen eta egokitzen asmatzeko ahalegina egiten dute etengabe, alderantzizkoa ez baita gertatuko. Horregatik, ahal duen neurrian, Zerainen presentzia izateko apustuari heltzen dio musika-eskolak. Taldeko irakasgaiak —Musika-hizkuntza eta Euskal Dantzak—, Seguran eta Zegaman dituzte aukeran, hurrenez hurren, zeraindarrak. Musika-tresnako eskolak, berriz, ikasle-kopuruaren arabera, Zerainen bertan har litezke, desplazamendurik batere egin gabe.

Gitarra klasikoa zein elektrikoa, baxu elektrikoa, trikitixa eta panderoa, klarinetea, saxofoia, txistua eta danbolina, pianoa, perkusioaren hastapenak (etnikoa, bateria, txalaparta...) eta musika-taldeak dituzte aukeran musikaren unibertsoan gozatu nahi dutenek, 4 urtetik hasi eta helduenganaino, adin-mugarik gabe. Izan ere, helduentzako irakaskuntza-lerro propioa du musika-eskolak. 2013/2014 ikasturterako, gainera, sartze-baldintzak aldatu egin ditu TOBERAk, musikazaleek errazago eta erosoago izan dezaten musika ikasten hastea.

Musika-eskolak Zegaman, Seguran edo Zerainen antolatutako emanaldiak asko dira, eta herriotan bestelako erakundeek antolatutako ekintzak lagundu eta indartu ere egiten ditu. Aspal-dion, ordea, musika-eskola ez da mugatzen gure herriotan bakarrik izatera presentzia; gero eta gehiago jotzen du kanpora, dela irteera didaktikoekin, dela beste musika-eskola batzuekiko elkartrukeekin edo dela musika-emanaldi berezitara eta lehiaketetara joatearekin.

Hala, musikaren aspektu teorikoez edo praktikoez ikastaroak antolatzen ditu sarritan TOBERAk; Euskal Herriko Musika-eskolen Elkartearekin lankidetzan jarduten du; musikariak zaindaria Santa Zeziliaren omenezko kontzertuak eta ikasturte-amaiera-koak eskaintzen ditu; dantza-jaialditan, musika-hizkuntzako



erakustalditan eta instrumentu-entzunalditan aritzen dira ikasleak urtero; herritarrei eta gurasoei begira, ate irekiko saioak antolatzen ditu; herrietako ekintzei musika jartzen die (Olentzero,



Errege Magoak, Santa Ageda, Segurako Lore eta Landare Azoka eta liburu-azoka, Zegamako Erlezainen Eguna eta San Joan sua, e.a.); beste musika-eskola batzuk bisitatzen joaten da; irteerak egiten ditu orkestra sinfonikoak entzuteko edota aparteko herrietako jai eta ospakizunetan parte hartzeko; lehiaketa, jaialdi eta topaketak jartzen ditu ikasleen eskura; e.a.

Irailetik aurrera ere, 21. ikasturtez jarraian, 2013/2014an, Zerainen izango du hanketako bat TOBERA Musika-eskolak. Orain arte eskolan trebatu diren 30 zeraindarrek baino gehiagok hala egin dutelako posible. Zatoz eta ezagutu zer duen TOBERAk zuri eskaintzeko. Zatoz eta eraiki gure kultura-komunitatearen etorkizuna.



Lirain Lurrindenda

Garagartza plaza, 1

20240 Ordizia

Tel: 943 805 327

San Inazio kalea, 12

20200 Beasain

Tel: 943 888 730



TRIKITIXA ZERAINEN

Eneko Dorronsoro | Trikitixako irakaslea

Urte batzuk badira jada Zerainen trikitixa lantzen hasi ginenetik. Herri txiki honetan izan ditugun aukerak eta eman asmo ditugunak dituzue segidan.

Hasiera hartan, trikitixa soilik ikasten hasi ginen. Helburua, ikasleak abestiak ikasiz, teknika hartu eta instrumentuaz gozatzeta izan da batetik eta euskal kantuekin erreperitorio bat lantzea bestetik. Erakusteko era ezberdinak landu ditugu, zenbakiekin, aurrez aurre, bideo bidez... notekin lantzeko aukera ere

izan da. Urteak pasa ahala, panderoa eta gitarra ere erakusten joan gara, sortzen ziren eskariei erantzunez.

2013-2014 kurtsoan, urte hauetan ikasi duten ikasleei, zein instrumentu bat jotzen duten edo zuten herritar guztiei zuzenduta, talde-lan klaseak izango dira. Helburua, herri giroan bakoitzak dakienarekin gozatzeta da eta aldi berean, herriko egun seinalatueterako emanalditxo bat prest edukitzea ere bai.

Informazio gehiago 653 717 937 edo edorronsoro@gmail.com



Izal Imaz eta Contreras

Pintura eta papergintza

20213 Idiazabal

Tel: 943 187 049 / 943 187 045

MUTILOA ETA ZERAIN ARTEKO HERRI MUGAK

1942ko Irailaren 30ean, "Osinetan" bildu ziren bi herrietako ordezkariak bi herrietako herri mugak markatu asmoz. Zeraingo ordezkari orduko alkatea zen Jose Maria Alustiza Aracama, udaletxeko idazkaria zen Guillermo Bereciartua eta Francisco Zabaloazuazola. Mutiloatik berriz orduko alkatea zen Blas Insausti, udaletxeko idazkaria zen Francisco Telleria eta Felix Aldanondo.

27 mugarri finkatu zituzten, guztira 6.200 metrotako luzera baiten. Mugarri hauek aurkitu, zaindu eta mantentzeko helburuarekin herritar talde bat mugarri hauek aurkitzen ari gara. Denak topatu ez baditugu ere, horretan dihardugu.




1. OSINETA

Segura, Mutilo eta Zerain arteko muga adierazten du. Garbi ikusten da azken urte hauetan aldatu egin dela tokitik, bira emanda dagoelarik mugarria.

Longituda: -2 15 34.1

Latitudea: 43 1 9

Altitudea: 246 m



2. OSINETAKO EGIA

Longituda: -2 15 37.2

Latitudea: 43 1 9.2

Altitudea: 259 m

3.

Beredi-zarra bezala ezagutzen den ingurunean omen da. Zarreko-potzuaren ondoren, hariztia zen 1942an. Ez da aurkitu.



4. Gaztañatxoa (Dudakoa)

Longituda: -2 15 46.5

Latitudea: 43 1 11

Altitudea: 255 m



5. Tellaetxeko gaztañaria (Dudakoa)

Longituda: -2 15 51.7

Latitudea: 43 1 11.1

Altitudea: 246 m



6. Oiharteko soro barrena

Longituda: -2 15 56.4

Latitudea: 43 1 10.4

Altitudea: 251 m



7. Oiharteko gaztanaria

Ez genuen aurkitu.

Longituda: -2 16 7.8

Latitudea: 43 1 12.5

Altitudea: 276 m



8. Murgiangoko etxe-burua

Longituda: -2 16 15.6

Latitudea: 43 1 12.4


Altitudea: 277 m

Mugarrietatik Mutiloa aldera begiratuta ikusten diren bistak

Mutiloa




Gabiri

**Mugarrietatik Zerain aldera begiratuta ikusten diren bistak**

Oamendi eta Aizpe inguruak



Aratz, Aizkorri eta Oamendi




Zerain




Ormaiztegi



Haizeleku



Burdinaren Mendia



Transformazio tailerra



Aizpe Goikoetxe

**9. Murgiaran**

Ez genuen aurkitu.

Longitudea: -2 15 19.1

Latitudea: 43 1 12.6


Altitudea: 273 m

**14. Ugarteko gaztañari baztarra**

Longitudea: -2 16 55.9

Latitudea: 43 1 5.4

Altitudea: 424 m

**21. Ollargain**

Longitudea: -2 17 48.6

Latitudea: 43 1 31.1

Altitudea: 589 m

**24. Legorburu**

Longitudea: -2 18 9.8

Latitudea: 43 1 25.2

Altitudea: 692 m

**10. Kalpartxo**

Longitudea: -2 16 31.9

Latitudea: 43 1 10.8

Altitudea: 246 m

**15. Ameztitxo**

Longitudea: -2 17 1.4

Latitudea: 43 1 8.5

Altitudea: 419 m

**26. Zabarain**

Longitudea: -2 18 48.4

Latitudea: 43 1 23.9

Altitudea: 761 m

**11. Kalpartxo**

Longitudea: -2 15 56.4

Latitudea: 43 1 10.4

Altitudea: 251 m

**16. 17. 18. 19.**

Ez genituen aurkitu.

22. Ollargain

Longitudea: -2 17 58.3

Latitudea: 43 1 31

Altitudea: 628 m

**23. Aitz-buru**

Longitudea: -2 18 9.8

Latitudea: 43 1 25.2

Altitudea: 692 m

**27. Zabarain (Legazpirekin muga)**

Longitudea: -2 18 50.3

Latitudea: 43 1 24.2

Altitudea: 761 m

**12. eta 13.**

Ez genituen aurkitu. Ugarteko gaztañari bazterrean omen daude kokatuak.

**20. "Portal de Belén"**

Longitudea: -2 17 28.2

Latitudea: 43 1 19.2

Altitudea: 458 m



AXALKO BIZIKLETAK, MUNDUAN BAKARRAK

Arantzazu Muñoa

Denbora gutxian izen handia hartu du Axalkok, Zerainen egindako egurrezko bizikleten markak. Sarean apur bat miaztea nahikoa da mundu birtualean lortu duen sonaz jabetzeko. Eta hain zuzen, Internet da Axalko eza-gutzero emateko nahiz saltzeko erreminta nagusia. Era askotako webgune eta blogetan ageri dira bizikleta hauei buruzko artikulak eta erreferentziak: ziklismoarekin edo kirolarekin lotutakoetan, luxuzko produktuei buruzkoetan nahiz egurraren ingurukoetan. Baina guztietan gauza berbera errepikatzen da: Axalkoren kalitatea, dotorezia eta munduan bakarra izatea.

Andoitz eta Aitzol Telleria anaiak eta Haritz Iturrioz, Txirbil aroztegiko hiru sozioak, orain dela sei urte inguru hasi ziren egurrekin bizikletak egiteko burutazioarekin. Egurra ondo baino hobeto ezagutzen dute eta zera otu zitzaion: bizikletaren koadro arina, baina aldi berean iraunkorra egitea egurrekin. Materialen erresistentzien taulek diotena frogatu nahi zuten horrekin, hau da, egurra aluminioa edo altzairua bezain iraunkorra izan litekeela erakutsi nahi zuten, eta bide batez, egurrekin ere gama altuko produktuak egin daitezkeela.

Hasieratik zekiten Txirbileko lagunek erronka zail baten aurrean zeudela, baina horrek are erakargarriago egiten zuen proiektua. "Beti entzun izan ditugu, adibidez, banbua altzairua baino gogorragoa dela eta antzeko kontuak. Eta materialen tauletan ikusten da, bolumen berean ez, baina pisu berean al-

tzairua eta beste hainbat material baino fuertagoa dela egurra. Eta hori egia bada, segituan burura etortzen zaizu, altzairuarekin egin daitezkeen gauza asko egurrekin ere egitea egongo dela. Hortik abiatuta otu zitzaigun egurrezko bizikletak egiteko ideia", azaldu du Aitzolek. "Ez hori bakarrik. Materialen fibrei begiratuz gero ere, ikusten da karbono fibra baino fuertagoa dela zelulosa fibra, hau da, egurrarena", gaineratu du Andoitzek.

Hala, denbora libreetan, kapritxo, egurrezko koadroak egiteko saiakeretan hasi ziren. Lau bat urtez, hamaika egur puskatuta eta alferrik galduta, frogak egin eta egin aritu ziren bi anaiak. Azkenik, 2010eko maiatzean lehen prototipoak atera ziren Txirbil aroztegitik. Telleria anaien esanetan, egurrezko koadroak egitea oso konplexua da. Izan ere, karbonozko bizikletak deritzogun horiek, ormigoi armatua urtu eta molde batean sartuz egiten dira. Egurra, ordea, eskuz landu behar da, ezin da urtu eta molde batera bota. Egurraren lanketa hori oso nekeza da, fibrak kontuan hartuz egin behar delako: "Fibrak ezin dira moztu, bestela egurra puskatu egiten da, eta kurbaduretan ere kontuz ibili behar da. Beraz, produktiorako ere askoz denbora gehiago behar da", argitu du Aitzolek.

Produktzio prozesua

Bizikleten egurrezko koadroaren diseinua nahiz produktioa, dena, Txirbileko lagunek eurek egiten dute. Geometriak estandarrak dira eta neurriak horretara egokitzen dira, gero bakoitzak gehien gus-tatzen zaizkion piezak (gurpilak, kanbioak, manilarrak, etab.) erans-



ten dizkie bizikleta horiei. Ia edozein egur erabil daiteke. Gehienez bezeroaren desio estetikoaren arabera aukeratzen da hori.

Behin diseinua eginda, egurra landu behar izaten da, lamina finak hartu eta fibraren arabera kurbatuz joan. Hala azaldu du Aitzolek: "Azkenean egiten duguna da, 4-5 fibra egin, jan beharrekoa jan, barrutik hustu, elkarri erantsi, gero berriz kanpotik forma eman eta azkenik beste bina kapa erantsi barrutik eta kanpotik. Baina ikusi gabe, zaila da prozesu guztia ulertzen".

Amaiera mikrolaminatua izateak iraunkortasun eta gogortasun maila handia ematen dio bizikletari, eta egitura barnetik hutsa izateak berriz, arintasuna. Axalko bizikletak ziklisten froga profesionalak gainditu ditu, hala nola, Frantziako bi lasterketa garrantzitsuenetakoak: Paris-Roubaix eta Flandesko Tourra.

Eskaera egiten denetik hiru hilabeteko epea ematen dute Txirbil aroztegiak bizikleta amaitzeko. Denbora hori guztia ez dute bizikleta egiten pasatzen, baina egurra landu, piezei kola eman, lehortu, berniza eman eta horretan guztian bi hilabete inguru igarotzen dira. Noski, denbora tarte horretan ez dira bizikleta horri begira soilik egoten.

Eskariak mundu osotik

Axalko egurrezko bizikletak interesa sortu du mundu osoan, eta eskaerak ere izan dituzte, leku guztietakoak, baina batez ere, Europa eta Japongoak. Oraindik gainera banatzaile sarearekin lanean ari dira. Hala dio Andoitzek: "Orain adibidez, hemen daukagu bizikleta bat muntatuta italiar batentzat, berak Italian distribuitzen hasi nahi lukeelako. Orain gutxi Japongo interesatu batek ere eraman berri du beste bat, han kontua mugitzen hasi nahi duela-eta. Oraingoxe kontuak dira, beraz ez dakigu zer emaitza izan ditzaketen edo zer eskari etor daitezkeen".

Azokaren batzuetan izan diren arren, salmentarik gehienak Internetetik etorri zaizkie, baita luxuzko produktuak saltzen dituzten errebisten bidez ere: "Adibidez, Squire errebistan atera gara, batere ordaindu gabe. Haiei produktua gustatu eta Axalkori buruzko erreportajea egin dutelako eta guretzat izugarriko publizitatea da, doakoa gainera. Hemen, Teknopolis eta antzeko programetan atera gara eta horrek ere ezagutarazi du Axalko. Atzo bertan Ordizian azoka batean egon ginen eta hala esaten zuten: 'hara, Zeraingo bizikletak'", argitu du Andoitzek.



*Gure eskerrik beroena
Oa Kultur Elkartearen izenean
Liztormendi Elkarteari*



Egurraren onurak

Beste bizikletek ez dituzten hainbat abantaila ditu Axalkok. Horietako bat eskusibotasuna da: norbere gustuen arabera egin dako bizikleta izatea, beste inork ez duen eta izango ez duen bizikleta bat. Horri erabat lotuta dago abantaila estetiko ere, erabiltzaileak berak aukeratu baitezake egurra edota bizikletak nolako akabera izango duen.

Bizikleta hauen bestelako abantaila gehienak egurraren onurerei lotuta daude. Egurra, hasteko, karbonoa edo aluminioa baino iraunkorragoa da. Beraz, bizikleta hauen bizitza zikloa, bestelakoena baino askoz ere hobea da. Egurrekin zerikusia duen beste abantaila bat zera da, bide txarretan karbonozkoa baino gozoagoa dela: "Lagun bati utzi nion Paris-Roubaix egiteko eta dirudienek, bibrazioak askoz hobeak dira, gozoagoak. Lasterketa horretan koadro asko pitzatzen edo puskatzen dira, baina gure bizikletak oso ondo egin zuen itzulua. Azken batean bizikletak behar duena saihetseko zurruntasuna da. Pedalei ematerakoan ez dadila asko mugitu, bestela hor indarra galtzen delako. Eta bestetik errepideko koskek bizikletariari transmititzen dioten bi-



AITZOL TELLERIA

"Materialen tauletan ikusten da, bolumen berean ez, baina pisu berean altzairua eta beste hainbat material baino fuertagoa dela egurra. Eta hori egia bada, segituan burura etortzen zaizu, altzairuarekin egin daitezkeen gauza asko egurrekin ere egitea egongo dela"

ANDOITZ TELLERIA

"Orain bertan bizikleta bat daukagu muntatuta italiar batentzat, han distribuitzen hasi nahi duela. Japongo interesatu batek ere eraman berri du beste bat, han kontua mugitzen hasi nahi duela-eta. Oraingoxe kontuak dira, beraz ez dakigu zer emaitza izan ditzaketen edo zer eskari etor daitezkeen"



Mandio Taberna

Herriko plaza z/g

20214 Zerain

Tel: 943 801 705

brazioa dago, kasu horretan zenbat eta zurruntasun txikiagoa, orduan eta hobe. Oreka hori bilatzea ez da erraza. Karbonozkoak badu desabantaila hori: pedalei eragiteko onak direla, baina errepide txarretarako ez", adierazi du Aitzolek.

Etorkizuna, dibertsifikazioa

Bizikletekin nahikoa ez eta orain kirolerako beste produktu batzuk egiten ere hasi dira Txirbil aroztégian. Mendiko makilak ekoizten hasi berri dira eta uda amaierarako komertzializatzen hasteko moduan izango direla uste dute. Denda fisikoetan ez ezik, online saltzeko asmoa ere badute.

Makila horiek goitik hasi eta beheraino Txirbilan eginak dira. Daukan tamainaren proportzioan bizikletaren lan antzekoa ematen du. Kanpotik berniza darama euriari ondo eusteko eta punta titaniozkoa du: "Guk makilak frogatu ditugu eta oso erosoak dira. Makinley-ko espediziora adibidez, mendizale guztiok makila horiekin joan ginen", azaldu du Aitzolek.

Baina hor ez da amaitzen Txirbileko lagunak ibilia, mendiko makilak ez ezik, pioletak ere egin dituzte: "Bi dauzkagu eginda eta horiek Ma-

Axalko izenaren jatorria

Telleria anaiei umetan amonak kontatzen zien ipuinetik hartu zuten Axalkoren izena. Azeri zuhur bezain bizkorra zen Axalko. Hona hemen ipuina:

Kukurruku

Zer dezu?

Buruan min

Zeinek egin?

Axalkok

Axalko nun da?

Txotxak biltzen

Txotxak zeittek?

Sue eitteko

Sue zeittek?

Ude berotzeko

Ude zeittek berotu?

Zaperoa eitteko

Zaperoa zeittek ein?

Olloi emateko

Olloi zeittek eman?

Arrautzak eitteko

Arrautzak zeittek?

Apaizei emateko

Apaizei zeittek eman?

Mezea emateko

Mezea zeittek eman?

Danko zerua jun ta hango gozo danak jateko

kinley-ra eraman ditut eta frogatzen hori behintzat gairitu dute". Egurrezko pioleten abantaila nagusia termikoa da. Aluminiozkoekin eskuak izoztuta ibili ohi dira mendizaleak, eskuko beroa izugarri xurgatzen dutelako. Hala dio Andoitzek: "Lehen lehenengo pioletak egurrezkoak ziren, gero teknikoagoak egiten hasi ziren, eta noski aluminioari forma ematea errazagoa da". Baina beste abantaila batzuk ere badituzte egurrezko piolet hauek: batetik, arinxeagoak dira aluminiozkoak baino, eta bestetik, ekaitza etorrira ere, tximista ez da aluminiara bezain erraz sartzen egurrera.

Azken baten, produktua dena delarik ere, Txirbilek kalitatearen eta esklusibotasunaren aldeko apustua egin dute Axalko markarekin. Bi aukera zeuzkaten, edo besteen antzeko produktuak egin besteen prezioetan saltzeko, edo beste era bateko produktuen alde egin (bertako materialarekin hemen egindakoak, eskuz landuak, etab.) eta prezio altuagoan saldu. Eta bigarren aukeraren alde egin dute.

Axalko produktuen bat nahi duenak Txirbilera (Andoitz, Aitzol edo Haritzengana) jo dezake, zuzenean. Edo bestela www.axalko.com webgunearan bitartez haiekin harremanetan jarri.



CONSTRUCCIONES EXCAVACIONES

ITURRIOZ S.A.

Polígono Eziolaza 24-B

943 18 75 56 Idiazabal

ARKITEKTO GALDUAREN ETXE GALDUA

Elixabete Garmendia

Zerainek badauka etxe bat berezia: Labordetarren Zerain Borda. Gerra aurretik eraikia, nabari zaio halako dotoretasun bat, urteek lausotu ez diotena. Etxe hori Gipuzkoako arkitekturan, XX. mendeko lehen erdian, arrasto nabarmena utzi zuen Luis Tolosak egina da. Beste altxor bat Zeraingo ondarean apuntatu beharrekoa.

Luis Tolosaren lana gordean egon da orain arte, harik eta La arquitectura de Luis Tolosa liburua (Donostia, 2012) atera den arte. Ana Azpiri Albistegui, Donostiako Arkitektura Eskolako irakasleak koordinatuta, Nerea argitaletxeak kaleratu du, Gipuzkoako Arkitektoen Kolegioak eta Pasaiaiko Portuak lagunduta. Liburu horretan oinarrituta, erakusketa egin zen 2012ko abendutik aurtengo urteko urtarrilera San Telmo museoan; bertan, Luis Tolosak egindako plano eta marrazkiez gain, berak altxatutako hainbat eraikinen maketak jarri ziren ikusgai.

Tolosaren obra ezkutuan egon izanak badu bere esplikazioa: titulurik gabeko arkitektoa zen, autodidakta. Pasaiaiko Portuko Obren Juntan aritu zen delinearzaile gisa, 1927tik 1956ra, ia hogeita hamar urtez; baina ez zen delinearzaile hutsa: berak diseinatu zituen portuko eraikin nagusiak eta baita bere izena daramaten portuko langileentzako etxeak ere Pasai Donibanan; obrak ezin zituen berak sinatu, titulurik ez izateagatik, eta beste norbaiten izenean jartzen ziren ofizialki.



Pasaiaiko Portukoez gain, beste hainbat obra proiektatu zituen Luis Tolosak. Arkitektura industrian aritu zen batik bat, eta hala, bereak dira, besteak beste, oraindik zutik dirauen Nueva Cerámica de Orio edo, Andoainen, Ziako lantegia eta Laborde-tarrena. Horiekin batera etxebizitzak ere proiektatu zituen: Donostian Villa Elly, Villa Iraun eta Villa Mallorquina, besteak beste; Altsasun hiru landetxe diseinatu zituen, horietako bat Ramon Vizcainorentzat; Irunen Villa Chingurri, bere familiarentzat. Trintxerpeko Karmengo Amaren eliza ere berak egina da.

Irungo bere etxe horretan gordetzen zen Tolosaren lanaren memoria. Haren seme Juan Ignacio Tolosak 2007an, Diario Vasco erreportaje batean, aitaren lan bat -Orioko Zeramika- beste arkitekto baten izenean agertzen zela ikusita, gutuna idatzi zuen egunkarira, kontua zuzenduz; hori izan zen Luis Tolosaren izena eta ondarea azaleratzen hasteko txinparta.

Aldi berean, Donostiako Arkitektura Eskolan, Ana Azpiri irakaslea bazebilen Luis Tolosaren lanen eskizak; arrastotan sartu eta irakasle talde batek heldu zion ikerketari. Tolosaren familiak gordetzen duen artxiboa eta Pasaiaiko Portuko Obra Juntarena aztertu eta Luis Tolosak egindakoen inbentarioa osatu ahal izan dute, haren arkitekturaren ezaugarriak finkatuz. Ondorioa argia da; Ana Azpirik dioenez, "Luis Tolosa Amilibiaren figura gerra osteko (1939-1950) arkitektura gipuzkoarraren panoraman garrantzitsua da. Garai horretako eraikinik onenak bere eskutik atera ziren".



Luis Tolosa 1930 inguruan.



Zerain Borda, azken aurkikuntza

Labordetarren Zerain Borda Tolosak egin dela gerora argitu da; liburuan ez dago eraikin horren aipamenik. Juan Ignacio Tolosari etxe horren berri eman eta Labordetarrekin harremanetan jarri zen aurtengo otsailean. Herminia Labordek, Manuel Laborderen ilobak, argitu zion kontua: Blanca Labordek, Manuelen alabak, zioenez, Zerain Borda Luis Tolosak diseinatu zuen.

Ekainaren 15ean Juan Ignacio Tolosa, haren emazte Rosa Tello eta alaba Berta, Gorka Reizabal -Pasaiaiko Portuko komunikazio arduradun ohia- eta Ana Azpiri Zeraina etorri ziren Laborde-tarrek gonbidatuta. Etxea ikusi eta Juan Ignacio Tolosak berehala aurkitu zituen bere aitaren eskuaren zantzuak: tximinia, Chingurrikoaren antz handikoa, teilatupeko egurrezko habe borobilduak... Ana Azpirik, etxea kanpo eta barru miatu eta, adituaren zuhertasunari uko egin gabe, eman zuen epaia: Luis Tolosak egindako arkitekturaren ezaugarriak nabariak dira Zerain Bordan. Iparraldean, XX. mendearen hasieratik garatu zen euskal estilo berriaren oihartzuna ikusten dio etxeari.

Gerra aurretik eraiki zen Zerain Borda; alboan daukan dorea, Manuel Labordek burdinazko piezen bilduma gordetzen

zuenekoa, gerora altxatu zuten, eta ez da Tolosak diseinatu. 1929an ezkondu zen Manuel Laborde Teo Auzmendirekin, Iñurategiko Dorotea Goiaren alabarekin; hortik zetorkion Zerainekiko lotura. 1936ko uda, gerra hasi zenean, Zerain Bordan igaro omen zuten Laborde-Auzmenditarrek. Hortaz, 1929 eta 1936 artean egin da etxe hori.

Manuel eta Enrique Laborde eta Luis Tolosaren arteko harremana gertutik bizi izan zuen Juan Ignacio Tolosak gaztetxotan. Tolosarrak ziren, adin bertsukoak eta adiskideak. Luis Tolosak diseinatu zuen Laborde anaiei Andoaingo lantegia 1928an, eta haxe da gainera arkitektura industrialean ezagutzen zaion lehen lana; proiektua Manuel Labordek sinatu zuen, ingeniari gisa. 1939an jangeletako eraikina diseinatu zuen Tolosak, pabilioi nagusiaren atzeko aldean, eta honekin batera multzo bat osatuz. Gaur egun Martin Ugalde parkea deritzana dago hor, besteak beste *Berria* egunkariaren eta Hamaika Telebistaren egoitzak dituen bere baitan.

Kontua da Luis Tolosa izan zela, Azpirik dioenez, Labordetarren konfiantzazko gizona arkitektura kontuetan. Beraz, erabat logikoa da Manuel Labordek Zerainen etxea eraikitzea erabaki



Oiharte

Nekazalturismoa eta sagardotegia

Maria Luisa Urrestarazu

20214 Zerain

Tel: 680 171 291



Ezkerreko argazkian, Zeraín Borda. Eskuineko argazkian, erdian, azalpenak ematen, Ana Azpiri; ezkerretik hasita Rosa Tello, Gorka Reizabal, Mikel eta Elena Orbegoza Laborde eta Juan Ignacio Tolosa.



zuenean, Tolosari eskatu izana proiektua. Horri esker, Zerainek Gipuzkoako arkitekturan nor izan zen gizonaren eraikin bat dauka.

Luis Tolosa Amilibia (Tolosa 1903-Irun 1956)

Irunen kokatutako tolosarra. 1927an Pasaiaiko Portuan lanean hasi eta bi urtera ezkondu zen Gloria Barnechea Iruretagoienarekin, Lezon; Iparraldeko jatorria zuen Barnecheak, baina irundarra zen; Colon pasealekuko etxe batean jarri ziren bizitzeko senar-emazteak, harik eta 1936an Irungo erreketara izan zen arte; hartan galduko ziren Luis Tolosaren zenbait artxibo. Hortik aurrera, gerra garaia Irungo Ducoureaux jauregian igaro zuten Tolosa-Barnechea senar-emazteek, Frantziako kontsularen egoitzan (gaur egun Mondragon Unibertsitatearen eraikina), bi seme-alaba zaharrenak aitona-amonekin batera Hendaiara ziren bitartean. 1938an altxatu zuen Tolosak Villa Chingurri, Anaka auzoan, eta bertan jarri zen bizitzeko familia hurrengo urtean.

Lau seme-alaba izan zituzten Tolosa-Barnecheatarrek: Luis, M. Dolores, Juan Ignacio eta Javier. Azken aurrekoa, Juan Ignacio,

izan da aitaren artxibo eta lanak gorde dituen, bere emazte Rosa Telloarekin batera.

Goizetan Pasaiaiko Portuan eta arratsaldeetan etxean lanean gogoratzen du Juan Ignaciok aita, portuz kanpoko proiektuak egiten; tarteka obretara ere laguntzen zion semeak aitari, eta hala ezagutu zituen, besteak beste, Manuel eta Enrique Laborde.

Autozalea omen zen Tolosa, onceligero deitzen zitzaion Citroën baten jabe, SS-9591 matrikulakoa. Gainerakoan, lanaz kanpo, igandetako plana marrazten du Juan Ignaciok: goizean Irungo Pasiotarren elizara, mezetara; arratsaldean futbolera, Gal stadiumera edo Atotxara, txandan; iluntzean, zinera.

Unibertsitatetik ez pasa arren, alderdi intelektuala landu zuen gizona izan zen. Arkitekturari dagokionez, garaiako aldizkari arreratuak jasotzen zituen, Alemania, Ingalaterra eta Estatu Batuetatik. Tolosan, Euskal Pizkundeko figurak izan zituen lagun, Antonio Maria Labaien eta Lizardi, besteak beste.

53 urterekin hil zen artean lanean bete bete zebilen gizona, bat batean -bihotzekoak jota- 1956ko otsail hotz hartan. Hileta elizkizunak, jendetsuak oso, Junkaleko parrokiaren egin zituzten.



Ondarre

Harategia · Frutak · Barazkiak

Zurbano kalea

20214 Segura

Tel: 943 800 326

BARBARI MENDIKO MINAK

Joxe Mari Etxaluze

Arrolako jentil-olak edo haize-olak ahal zen moduan aztertu ondoren, BARBARI Mendiko Minak aztertzen neukan lanik garrantzitsuena eta horretarako, beti bezala, edade gehieneko jendearengana jo nuen argibideren bat ematen ote zidaten.

Lehenengo Rosario Arantegiri Barbari Arretxeko minen inguruan egin nion elkarrizketa eta esan zidan berak neska koskorra zela eza-gutu zituela mendiko minak ustiatzen edo lanean. Ez zen gogoratzen zein langile zebiltzan garai hartan lanean, baina bai nola kable bidez eta bagoietan ateratzen zuten minerala. Basazabalgo Intxaurreta aurrealdean omen zen karga-lekua. Gaur ere paraje ari karga-leku deitzen zaio. Han bi poste edo matxoi luze egin omen zituzten, beste bi matxoi luze Muñotik aurreraxeago, Tellaintxon, eta beste bi Zegaman Kainpe baserriko terrenoetan, eta horrela jarri omen zuten mineralarentzat deskarga lekua edo almazena.

Bagoiak kablearen alde batetik beteta jaitsi eta beste aldetik bueltan hutsak etortzen omen ziren. Argibide horiek Rosariok eman zizkidan. Baina zerbait gehiago jakin-minez, Maria Muñoa Barbari Arretxekoarengana ere jo nuen. Nire lehenengo galdera izan zen ea ezagutu zituen Barbari mendiko minak ustiatzen, eta gutxi gora-behera Rosariok esan zidan gauza berbera esan zidan, baina detaileren bat gehiagorekin. Esan zidan Barbari mendiko minetan gehienbat bi lekutan atera zutela minerala. Goaitako lubaki edo trintxeran, eta haitzaren beste aldean Kortatxo aldetik, Iparrar terrenoaren gorenean. Dn. Pedro izenekoaren terrenoan. Don Pedro hau Pedro Ajuria zen Araiako Fundizio galdategiko nagusia eta aldi berean Barbari mendiko minako nagusia.

Maria Muñoak esan zidan Dn Pedro izeneko mina horretatik karga-lekura bagoi bidea egin omen zutela minerala karga lekura garraiatzeko. Gaur ere oraindik bagoi bidearen eta karga-lekuaren aztarnak oso nabarmenak dira aztertu nahi dituenarentzat. Beste bitxikeri bat ere kontatu zidan. Bagoi bide horretan minerala garraiatzeko bagoia mando batekin tiraka ekartzen omen zuen karga lekura. 400 bat metro egongo dira gutxi gora behera. Zegamako Altziber baserrikoa omen zen mandoa eta nagusia ere bai, baina animaliek askotan gizakiek adina jakinduri izaten dute. Horren adibide da mando hori:

bagoia gehiegitxo kargatzen bazioten, lehenengo kolpea jo eta gehiegi zegoela konturatzearekin batera uzten omen zion tiratzeari, eta langile azkar ustekoek bertan kendu behar izaten omen zioten sobran zeukan karga. Mando hark ere Domingo Kanpainaren mandoaren antzera *mas karga* hartutako lekuan *deskarga* egingo zuen.

Animaliak askotan gizonok geuk baino zientzi gehiago izaten du. Era horretantxe garraiatzen omen zuten Don Pedro izeneko minako minerala. Guaitako lubaki edo trintxerakoa garraiatzen samurra zeukaten, parean bertantxe baitzeukaten karga-lekua; terraplen gisara ere aise eramango zuten.

Dakigun neurrian, has gaitezen BARBARI Mendiko mina noiz itxi zen aztertzen.

Zeraingo beste edadeko pertsona batzuei bezala, galdera bera egin nion Kandido Aizpeoleari ere. Nik ea Barbari Mendiko minak lanean ezagutu zituen galdetu nion eta erantzun zidan lanean ez zituela ezagutu eta jarraitu zuen esanez: "Ni gogoratzen naizena da nola desmuntatu zituzten karrilak, bagoiak, kableak eta abar". Bere etxe ondotik, Teilantxotik barrena idiekin nola jatsi zituzten ere akordatzen omen zela esan zidan. Kainpe baserri ondora jaisten omen zituzten. Berak 3 edo 4 urte edukiko omen zituen orduan. Kontuak egin eta 1920-1921 urte inguruan utzi zioten mina horiek ustiatzeari. Nik galdezka jarraitu nuen eta hurrengo galdera izan zen ea gogoratzen ote zen Kainpe ondotik Araiara nola eramaten zuten minerala. Nik idiz eta gurdiz eramango zutela esan nion, eta berak ez zekiela esan zidan, ez zela seguru gogoratzen, baina berak uste zuela ordurako kamioietan eramango zutela. Geroztik jakin dugu oso zuzen zebilela bere iritzian. Aurreraxeago kontatuko dugu nola eramaten zuten eta nor ibiltzen zen karretean.

Geroztik Arrizabalako Tomas Telleriak mina horiei buruz hizketan hasi eta esan zidan bere aitari (Luis Telleriari) entzunda, Joxe Antonio Alustiza Unsulategikoa artzaintzatik libre zenean Barbari Mendiko minan lanean ibili zela. Hor lanean ibilitako langileen aztarnaren bat bazegoen zorionez: mina horretan ateratako argazki bat, hain zuzen. Inurrategiko Gregorio Kapataz zela eta hortik baliatu ginen gehien bat mina horretan lanean ibilitako langileen aztarna ateratzeko.



Barbariko meatzariak 1920

Hauexek azaltzen dira argazkian: Gabino Idigoras (Barrene-txe), Axintxio Mugika (Olabide), Kandido Alustiza (Migelene), ezezaguna, Braulio Goiburu (Gaztainari barrena), ezezaguna, Soraluze (Zegamarra), Esteban Berasategi (Zabalegi Garakoa), Gregorio Goia (Iñurategikoa), kapataza.

Horiez aparte badakigu bata eta besteri entzunda, beste batzuk ere ibili zirela: Pedro Arakama (Aranekoa), berak neuri kontatu zidan bitxikeri batetik jakin nuen; Tomas Telleria (Xierdi) ibili zela ere badakigu berari gertatu zitzaion bitxikeria ezagun

batez bidez. Joxe Antonio Alustiza (Unsulategikoa) ibili zela ere badakigu Tomas Telleriak (Arrizabalagakoa) esanda. Aitaren berri eta aitari entzundako bitxikeri asko kontatu zidan. Aspal-diko kontuak dira eta batek eta bestek esandakoarekin saiatu gara puzzlea osatzen, baina badakigu pieza asko geldituko zaizkigula kanpoan, baina ahal dena egin behar.

Arrolako jentil olak edo haize olak aztertzen jardun nintze-nean ikusi genuen, Iñurategiko Frantzisko Antonio Goiak harreman estua izan zuela Araiako Pedro Ajuria eta bere familiarekin.



Ostatu Jatetxea

2014 Zerain

Tel: 943 801 799



Eta Barbariko mendiko minak ustiatzen hasi zirenean Gregorio Goia, Frantzisko Antonioren semea izendatu zuten mina hartako buruzagi edo enkargatu.

Lehenengo hartu zuten erabakia garraioa erosotzea eta merkatzea izan zen, eta horretarako Guaita azpian gaur Opor Leku izeneko soziedadea dagoen aurrealdean karga lekua egin zuten 2 matxoi handi eginda. Eta Muño baino aurreraxeago dagoen Tellaintxo izeneko terrenoan jarri zituzten beste 2 matxoi eta handik behera Kainpe izeneko baserriko terrenoan beste 2 matxoi egin eta deskarga lekua edo almazena jarri zuten.

Matxoi horien bueltan kablea jarri zuten bagoiekin jira-biran ibiltzen zena; bagoi bat beteta jaisten zen eta hutsik igotzen zuen. Era horretara portea edo garraioaren gastua asko murriztu zuten. Enkargatua edo kapataza Gregorio Goia izan zen eta langileak nortzuk izan ziren jakitea nekeza bada ere, bakar batzuk badakizkigu. Ahoz ahoko sokari tiratuta, badakigu Pedro Arakama (Aranekoa), Luis Telleria (Arrizabalagakoa), Roke Arriaran (Tellerikoa), Joxe M^a Aizpeolea (Muñokoa) eta Tomas Telleria (Xierdikoa), behintzat Gregorio Goiaren aginduetara lanean ibili zirela Barbari mendiko minatan.

Pedro Arakamak zera kontatu zidan: Barbari mendiko minan lanean zabiltzala, udazken goiz batean, egun sentian, beti bezala joan omen ziren lanera (orduan argitik ilunera izaten zen lan-eguna). Arrizabalako Luis Telleria goizean eskopetarekin azaldu omen zen lantokira eta esan omen zuen goiko gainetik buelta bat egin behar zuela abutarda bakarren batzuk zeuden ikusteko, beste lagunek, Pedrok barne, ez joateko eskatu omen zioten, Gregorio kapataza laster etorriko zela-eta. Baina Luisek bereari eutsi omen zion eta hala joan omen zen bere eskopeta, kartutxo eta guzti. Luisek alde egin eta laster azaldu omen zen gure Gregorio hori. Mutilak kontatu omen zituzten eta bat falta. Berehala ohartu omen zen Luis Telleria zela falta zena eta Luis ez ote zen lanera etorri galdetu omen zuen. Pedro eta lagunak zer esan ez zekitela gelditu omen ziren. Orduan norbaitek esan omen zuen baietz, etorri zela, eta prakak askatzera joana zela norabait eta hala baretu omen zen Gregorioren haserre. Baina

handik berehala Luisek ez uste artean Gregorio etorrita egongo zenik eta ttapa-ttapa bere eskopeta eta abutarda eskuan zituela sartu omen zen lanean ari ziren lekuraino. Gregoriok galdetu omen zion ea non izan zen eta Luisek egia esan: goiko gainean izan zela abutarda banda bat zegoelako, eta tiro egin eta bat bota zuela.

Gregorio oso haserrekoa eta zakarra omen zen eta beste lagun denak beldurrak omen zeuden egun hartako umorea galduko zuelakoan Gregoriok, baina hau bare-bare jardun omen zen eta Luisi losintxa egin omen zion. Gregoriok aurki ikusi omen zuen Ajuriatarrentzat erregalo polit bat oso eskura zeukala eta Luisi berari eskatu omen zion abutarda hori Ajurriate-rreri erregalo egiteko. Luisek hala eman omen zion abutarda hori Gregoriori eta denak pozik.

Barbari haitzean Urubi izeneko lekuan bazen txabola bat: "Borda de Agustin Alustiza". Halaxe jartzen zuen idatzita atearen gainean letra urdinez. Txabola zuriz karearekin margotuta zegoen. Txabola horrek egiten omen zuen mina haietako bulego edo ofizina zerbitzua. Txabola hori bota egin zuten Barbari Handiko Juan eta Jabierrek ukuilua egin zutenean paraje berean. Zorionez, argazki bakar batzuk gordetzen dira txabola horren lekukotasuna erakusten dutenak. Txabolak ipar aldera departamentu txiki bat omen zuen kanpora leihatila batekin. Gregorio Goiak hortik pagatzen omen zien aste bukaeran bere langileei soldata. Barbari Handiko Juan Aizpeoleak esan zidan, berak etxean entzuna zeukan Gregorio Goia Barbari minatik Araiara joaten zela larunbat goizean, iluntzean langileei soldata pagatzeko diru bila. Garai hartan horrelakoxe ibilerak egiten ziren.

Beste bitxikeri bat ere kontatu izan dit Juan Mari Aizpeoleak etxean entzuna. Tomas Telleria (Xierdi) larunbat iluntzean bulego horretan jorrala kobratu eta etxera pozik baino pozikago joan omen zen, eta etxean jorrala entregatzen hasi zenean konturatu paperezko pezeta bat galdu zuela bidean. Asto beltzarenak eta bi entzun ondoren, aita Joxe Marik pezeta horren bila bidali omen zuen farol argiarekin eta hala beharrez, ia Uribiko ofizina horren gertura iritsi zenean bilatu omen zuen pa-



perezko pezeta hori. Ez zen haserre izango aitari eta amari pe-zeta emateko aukera izan zuenean. Xierditik Urubira ordu bete pasako bidea dago pertsona normal batentzat.

Kainpe baserriko lurretan pilatzen zuten minerala, kamioiz eramaten omen zen Araiaiko fundiziora. Horrek egiaztatzen du niri Kandido Aizpeoleak elkarriketaren hasieran esana, alegia, ordurako kamionetak garraioan ibiliko zirela.

Garraio lanetarako erabili zuten kamioia Araiaiko Ajuriatarrena omen zen eta kamioiarekin karreoan ibili zena Mujika (Olabidekoa). Garai hartan txofer jakitea eta karneta edukitzea ez zen ahuntzaren gauerdiko eztula izango, baina Axintxiok bazituen, ikusten denez. Argibide hauen berri Tomas Telleria (Arrizabalagoak) eman zidan bere aitari entzunda.

Tomasek emandako argibideei jarraituz konturatu nintzen Arrondotarren familia ez zela Kainpekoa, Amondraingoa baizik, baina etsipenik hartu gabe hariari tiraka hartu nuen Kainpeko familiaren aztarna. Zegamako (Gozategiko) Joxe Antonio Arizkorretak esan zidan Manuel Arizkorreta (Bar Manolo) eta Kainpekoak eta Gosategikoak abizen berekoak zirela, alegia odol berekoak.

Joxe Antoniok esan zidan familia horrek Kainpe baserria utzi eta Zegamatik alde egin zuela eta seme bat Zaldibian bizi izan omen zela. Orduan Zaldibian hasi nintzen aztarna bila eta berehala bilatu nuen Ramonita. Kainpen jaiotako semerik gazteenaren alaba eta berari zor diogu Kainpeko familiaren aztarna guztia. Eskerrak bihotz bihotzez Ramonitari. Berak eman zidan aitaren identitateko karneta eta horrekin udaletxera joan eta atera nuen Joxe Migel Arizkorretaren aztarna.

Joxe Migel zen Kainpen jaiotako seniderik gazteena. 1902ko ekainaren 1ean jaio zen. Joxe Migelek 8 urte zituela, 1910ean, zoritxarreko sute batek Kainpe baserria erreta kiskali eta birrinduta utzi zuen eta orduan familia dena sakabanatu egin zen. Zorritxarrez, Euskal Herrian gehiagotan gertatu den histori samingarria dugu hori.

Familiako seme bat Santiago de Txilera joan zen, beste anai bat Altsasura, alaba bat Donostiara eta beste alaba bat amarekin Beasaina eta beste senideak nora joan ziren ez dugu aztar-

narik atera. Joxe Migel senide denetan gazteena 8 urterekin Zaldibira joan zen urrutiko familiako batek babesia emanda. Zaldibian ibili zen eskolan eta edadea iritsi zitzaionean karneta atera eta txofertzan atera zuen bizia. Bere urterik gehienak taxista pasatu zituen- 2 taxi plaza ere eduki zituen aldi berean, taxi batekin txoferra jarrita.

Mineralak Kainpeko lurretara jaisten zuten eta hortik Araiaiko fundiziora eramaten zuten. Kainpen minerala uzten zuten zabal-kuna edo "kampa" gaur ere oraindik nabarmen dago nahi duenak ikusi. Barabari mendin ere aztarna asko gelditzen dira oraindik, baina asko desagertu dira urteak pasa ahala. Borda de Agustin Alustiza Barbari minako ofizina edo bulego egiten zuena desagertu zen. Guaitako luebaki edo "trintxena" ere desagertu da ganaduak bertara erortzeko arriskuagatik. Dena lurrez edo zaborraz bete dute, bizitzak ezbehar eta ustekabe asko eman arren aurrera jarraitzen du eta.

Kainpetarrak eta Barbari mendiko minak ere halaxe jarraitu zuen 1920tik 1922rako tarte horretan bere ibilbideari utzi zion arte.

Mineralak Kainpeko lurretara jaisten zuten eta hortik Araiaiko fundizio edo (galdategira) eramaten. Kainpen minerala uzten zuten zabalkuna gaur ere oraindik oso nabarmen dago ikusi nahi duenarentzat. Barabari mendin ere aztarna asko gelditzen dira oraindik, baina asko urteen kargak desagertu arazi ditu.

Mineralaren kalitatea

Niri Antonio Guridik (Arakama Garakoa) lan hau bukatzeko aztarna bila hasi nintzenean esanda, badakit oso kalitate oneko minerala omen zela Barabari mendikoa, horregatik eramaten omen zutela gehien bat Ajuriatarrek. Beste leku batzuetakoek kalitate baxuagokoa erabiltzen omen zuten, gehien bat. Baina mineral harekin bakarrik egiten zuten "agoha" edo forjatzeko jartzen zuten burdin puska askoz zakarragoa gelditzen omen zen forjarako eta mailuan lantzeko. Barabari mendiko minerala nahastu ezkerro beste mineralarekin, askoz "Agoha" edo burni gozoagoa ateratzen omen zen forjatzeko, eta mailuan nahiz ingudean maneatzeko gainera askoz peatza edo "eskori" gutxiago eramaten omen zuen "agohak" forjara.

Nonbait Barabari mendiko mineralak zeuzkan kalitatea eta onurak Don Manuel Laborde jaunak ondo aztertutak zeuzkan eta bere lan bikain batean oso ondo deskribatzen ditu. Nik orain egingo dudana da bere erdarazko lan bikain horren zatitxo bat euskarara itzuli eta zuei eskaini nire lan honen osagarri, irakurri nahi duenarentzat: *"El laboreo del Hierro Por Manuel Laborde"*, Ferronez aldizkarian argitaratua.

Lehendabizi esan dezadan, Laborderen lan bikain horretatik Harritxu Etxaluzek euskarara egindako itzulpena dela zati hau.

"Duela urte batzuk Manuel Labordek burutu zuen (errauts)



(zepa) (sarra) hauen azterketa kimikoa eta emaitza hauek eman zituen : % 75 Burdin Oxidoa, % 20 Silizea, % 80 Kaltzio Oxidoa eta % 5 zehaztu gabeko hondakinak. Azterketa horretatik ondorio hauek atera ditugu. Errautsaren kolore beltza disiratsuak adierazten du fabrikatze prozesua abiadura oxidante bortitzean gertatu zela (Ilinti bizi eta zuria) . Hasieran lortzen zuten iragazitako burdina (kolada), behar bada, oso karburatua eta silizioduna zen, eta aireari putz egitearen ondorioz hauek funditutako masa gaindituko zuket. Beraz oxigenoa silizioarekin konbinatuz oraindik burdina egoera likido pastatsu batean mantentzeko adinako tenperatura igoera sortuko zen, bitartean karbonoaren proportzioa gutxitzean hau materia forjagarri bihurtuko zatekeen. Kaltzio oxidorik ez edukitzeak kare harriaren ezagutzarik eza frogatzen du urgai moduan burdinaren lorpenean.

Bestalde, honen erabilera ez zen beharrezkoa, suferik ez edukitzean kargak egiterakoan egur ikatza dela-eta.

Silizioaren agerpenak frogatzen du mineralaren gutxitze prozesuan area silizeak erabiltzen zituztela burdin mineralarekin nahasteko egur ikatzaren kargetan. Agian honen erabilerarik ezean ezingo zuten burdin forjagarririk lortu.

Oso litekeena da ere labeen gaineztaduretarako harri arenis-

koak erabiltzea oso-oso ugariak baitira errautsak jasotako lekuan.

Errautsetan dagoen burdin oxido kantitate handiak fabrikatzearen prozesuan ematen zen abiadura oxidantea baieztatzen du eta bertan lortutako errendimendu urria".

Hauxe da D. Manuel Labordek Barbari mendiko minari buruz egindako azterketaren zatitxo bat. Euskarara itzulita jartzea erabaki dut, lan honen osagarri gu guztiontzat argibide izatearren. Eskerrak Harritxuri lan hau euskarara itzulita guretzat jartzearen. Berak ere bere (peatza) aletzea jarri duelako.

Don Manuel Laborde azterketa zientifikoak paperean idaztearekin bakarrik ez zen konformatu. Gipuzkoa Kutzak bere 100. urtemuga ospatzeko Pio Karo Baroja zinegileari eskatu zion Gipuzkoako festa lan artisautza eta bereizgarriak filmatzeko. Manuel Labordek Pio Karo Barojarekin zuen harreman estua aprobetxatuz, Barbari mendiko minari buruz DVD edo ikus-entzunezko lan bikain bat egin zuen 1980. urte inguruan. Horretarako garai bateko haize ola irudiko labe bat egin zuen. Hura egiteko, espresuki zine munduan adituak ziren pertsona batzuk ekarri zituen Madriletik.

Esan dezadan aktore lanetan ibili zirenak inor ez zela zine munduaren ezagutza apurrik zuenik eta horrela grabatu zuen pelikula labor bezain interesgarri hura.

Grabaketa hartan ibili ziren aktoreak hauek izan ziren: Juan Mari Aizpeolea (Barbari Haundi), Joxe Arakama (Arane), Mikel Orbegoza Laborde (Manuel Laborderen biloba), Benito Muñoz (Aspatzatziki, Segura), Joakin Sanpedro (Arrola Berri), Mirentxu Goñi Auzmendi, Uxo Mugika Goñi, Xabiñe Ugalde, Joxe Mari Mugika.

Zeraingo eta Euskal Herri guziko Haize olak hilezko eginez, Dn. Manuel Laborderen alde esan behar da, hori dena bere poltsikotik ordainduta egin zuela Zeraini, Euskal Herriari eta euskal kulturari zion maitasunagatik.

Bihotz bihotzez mila esker Dn. Manuel egin duzu guztiagatik.

Agur eta ohore Manuel. Egun handira arte.



Tellerine Baserria

Nekazalturismoa

Jose Migel Arrondo Irastorza

Aizpe auzoa

20214 Zerain

Tel: 943 582 031

“Martin Alustiza”

Joxe Mari Etxaluze

Doinua: “Mutil koxkor bat itxu aurreko”

1

Egun sentia gau illunetik
ateratzen den modura,
bertso maiteok, apal da gozo
irten barrendik kanpora.
Seme bizkor bat zukan sortu da
O, biotzeko Segura,
Pelotarien arteko maillak
Igotzen ari da gora,
zu Martiñengan egon zindezke
poz jario ta gustora.

2

Pelotarekin murgildurikan
zabiltza buru belarri,
aldan ziririk aundiñak sartuz
or zabiltzate alkarri.
Eskubira edo txokora bota
zuk atzetik azkar korri,
iñork pentsatzen etzitunake
zuk frontixera ekarri,
zuk goraldutzen dituzu bapo
Segura eta Goierri.

3

Nunbait ortako jaio ziñan da,
pelota dezu maitea,
zure gorputza aurkitutzen da
doai bereziz betea.
Zuk dadukazun akats bakarra
txikitxo izatea,
zuk jotzen dezun pelota zail da
zortzi kuadrora joatea,
orregatik da txalogarria
ain lan onak egitea.

4

Martin saiatu zaitzez zu beti
gizatasunez jokatzeko,
gizonak beti jakin behar du
irabazten eta galtzen.
Gizatasuna eta artea
ez dirade metroz neurtzen,
saiatu zaitzez al diraden lan
txalogarrinak egiten,
egindako obrak urtien kargak
ere ez ditu itzaltzen.

5

Oinbeste kemen nolatan gorde
du zure gorputz eskasak,
gauz bitxientzat kutxa txikiak
gordeleku aproposak.
Egi biurtzen ari zera zu
guk egindako ametsak,
ez pentsa egin dituzun lanak
izan diranik jolasak,
zuk ixilduko dituzu laister
berritxuen esamesak.

6

Beste batzuek geiago dira
gorputzez eta jo aundiz,
ederragoa zail da izaten
ezkerrez eta eskubiz.
Nere iritziz paregabe
zera ankaz eta gerriz,
bi begi argik izaren gisa
egiten dizute diz diz,
katedratiko izan zindezke
pelotako jakinduriz.

7

Askok ez dizute aitortu nai
dadukazun balorea,
bidezko da ta eman bear zaio
emen bakoitzai berea.
Gerriz biguna, ankaz bizkorra
jokatzaile dotorea,
arkaitz koskor bat bezain gogorra
etetzen zail den erea,
batik bat orregatik egiten
dezu askotan zeurea.

8

Martin etzaitzez geiegi fia
zenbait pertsonen itzetan,
oiek bustita etor litezke
inbidiaeren intzetan.
Zoritxarrez gaur askotxo poztan
gera besteren gaitzetan,
beti gogotsu saiatu zaitzez
artutako ekintzetan,
ia olaxe jarraitzen dezun
dir diran edo printzetan.

9

Frontoian garbi erakutsia
zaude zer balio dezun,
iru maillatan izan baizera
Españiako TXAPELDUN.
Zeuk ez dakizu zure lagunei
zer poz ematen diguzun
naiz ta lan orrek berekin izan
makiñatxobait zailtasun,
lenen maillako falta zaizuna
ia ekartzen diguzun.

10

Falta zaizuna, lenen maillako
txapela jantzi buruan,
AUNDIAK ez dabiltza zurekin
oso leku seguruan.
Gutxien uste duana jarri
dezakezu apuruan,
zalantzik gabe esan diteke
Segura ta inguruan,
izarrik argiena zu zera
pelotarien zeruan.

ZERAINEN, BERTAKOA

Zerain Dezagun Fundazioa: Maite Retolaza, Jon Harregui, Miren Makatzaga, Jexux Ezeizabarrena, Juan Mari Iztueta, Jakoba Errekondo, Andoni Alustiza

*ZERAIN DEZAGUN FUNDAZIOA sortu zenean helburu nagusi bat zuen: **herrian aberastasuna sortuko zuten ekimenak sustatzea**. Ekimen horiek era askotakoak izan daitezke, baina azken finean, xede berbera dute: lanpostu berriak sustatzea edo lehengo lanpostuak osatu eta egokitzea.*

Zerainen dugun ondare garrantzitsuena paisaia da, gure herriko paisaia zeraindarrok milaka urtetan egin dugun lana irakurri daiteke, gure arbasoen arrastoa hor dago, guri herentzian utzia. Bertan dugun natura, kultura, historia, eraikuntzak etab. ez daude beste inon eta horretxek eranstean dio aparteko balorea. Balore hori, ordea, eguneroko bizimodura ekarri behar da eta zeraindarron aberastasun bilakatu, eta horixe burutzen saiatzen da Fundazioa. Ziur gaude **lehen bizimodua eman zigun lur honek berak emango digula etorkizunean ere**.

Aberastasuna era askotara neurtu daiteke. Dirutan neurtu daiteke, jakinez zenbat diru sortu eta geratzen den Zerainen, baina garrantzitsuena zeraindar denoi dagokigun aberastasuna da: bizitza kalitatea, hain zuzen, hau da, gero eta zerbitzu gehiago eta hobeak izatea, ingurumen zainduagoa, etab. Horretarako, etengabe biraka lanean ari den errotarri baten tankerako proiektua jarri du abian Fundazioak, errotarri horrek ehotzen duen irina zeraindar denontzako dela ziurtatuz.

Gure errotarriak gai asko ehotzen ditu eta harrigarriena da zeraindarrok Zerainen egiten dugun lanak, erosketak eta bizitzak eusten diola biraka eta biraka errotarri horri.

Lurrari lotutako langintzak sustatzen dira (batez ere artzantza eta sagardogintza), nekazariok paisaia zaintzen dute eta zeraindarron bizitza kalitatea hobetzen da hala. Horrekin ondarea berreskuratzen da, eta paisaia eta ondarea oinarri direla, kanpotarrak erakartzen dira. Horiek herriko nekazarien produktuak eskuratu eta bertako zerbitzu turistikoak erabiltzen dituzte, eta horrekin nekazarien jarduerari eta turismo bulegoari, aterpetxeari, baserriko turismoari, sagardotegiei eta jatetxeei lotutako lanpostuei eusten zaie. Aldi berean, gainera, ondarea berreskuratuz zeraindarron identitatea eta autoestimua sendotzen dira. **Gure errotarriaren birak etengabeko inertzia sor dezake eta gure herriko dinamikari are eta indar handiagoa eran-**

tsi. Denon onura dakarren honi eutsi eta hauspotzeko denon ahalegina eta kementa behar da. Fundazioaren iritziz hori da **iraunkortasuna: Zerainen sortzen den aberastasuna herrian bertan geratzea.**

Orain arte sortu diren lanpostuak sendotzeko eta bide horretan berriak sortzeko gakoa gure lurra eta paisaiarekin dugun loturari eustea da. Axola handiko mugarri dira honetan bertan sortzen ditugun produktu eta zerbitzu guztiak: gaztaia, sagardoa, jatetxeak, sagardotegiak, lo-lekuak, bisita turistikoak... Zergatik ez...

- Medikuari oparitzeko gaztaia Basazabalgoa
- Kinto afaria Otatzan
- Argentinako lehengusuei minak erakutsi
- Lantokiko kideak Oiharte bidean jarri
- Ah, eta gatzak falta zaizula... ba, Mandio dendan erosi
- Soziedadera, Martina eta Jonen gazta erdi bat eraman, osoa hobe!
- Santio bidea egiten ari dena Aterpera bidali
- Zegamako ezkontzara etorri diren lagunak Tellerinen lo egin dezatela
- Txabolako teilatua, Txirbilek jarriko dizu pinu egurrekin
- Amonaren urtebetetze afarirako Milagrosek hazitako arkumea
- Ostegun eguerdian Saastilgo txekorraren xerrak
- Astearteko baxoerdia, txorixo mutur batekin, Ostatur
- Ostiraleko zerbeza Mandion eta gero plater konbinatua
- Muñoko pikatxea, Artxeke antxumea eta Barbariko gaztaia oporlekun
- Gabon gauean Lumagorriko kapoia eta Zabalegi azpiko ogia
- Tortila ederra Araneko arrautzekin, Mendarteko txakolinarekin bustita
- Ingelera Dodgens andereak irakatsiko dizu
- Ikortak soroa goldatu eta bildutako indoabak Mandiora saldu
- Gosaltzeko Otatzako esnearekin esne zopak
- Hezurrik gabeko mamia egiteko Olabideko ardi esnea
- Eta... eta... zenbat gauza ahaztuko genituen...

Garbi dago aberastasun hau areagotzeko bertatik hastea dela egokiena. Zeraindarrok eskuartean dugun aukera honetaz jabetu behar dugu. Jabetu eta erabili. Gure esku dago errotarria-

ren birak indartzea. **Honetarako bide berri bat ireki nahi du Fundazioak: Zerainen laguna txartela.** Txartel honekin Zeraingo produktu eta zerbitzuak erabiltzea bultzatu nahi da. Zeraindarrongandik hasi, kanpoko senitartekoe-kin eta Zeraindik joandakoen ondorengoekin jarraitu eta Zeraina bisitara edo zerbitzuak erabiltzera dato-



Ekonomia

ruzko informazio zabalagoa eta zehatzagoa laster izango dugu. Hala ere, informazio gehiago jaso edo zuzenean txartela eskatu nahi duenak aukera badu www.zerain.com orrian, "parte hartu" saileko "Zerain Laguna" atalean edo Turismo Bule-

zen guztiekin amaituta, gure herriarekin inolako harremanik daukan edo-nork erabiltzeko moduko txartela izatea nahi da. Herriko produktuak eta zerbitzuak erabiltzeak da-




Gizartea

kartzan onurez gain txartel honek berezko abantailak ere ekarriko dizkio erabiltzaileari. Horretarako eskaintza bereziak, ohiko prezioetan beherapenak eta abar lantzen ari gara. Abantaila hauek ere maila desberdinetakoak izango dira: zeraindarrontzat lehenik, Zerainen senitartekoak dituzten edo zituztenentzat gero, eta kanpotik bisitara datozenentzat azkenik. Honi bu-



GARAPEN IRAUNKORRA



Ingurumena

goan bertan. Zeraindar guztiok gara ekimen hauen onuradun, eta bera eusten eta sustatzen lehenak izan beharko genuke. Ez dugu inoren zain egon beharrik, errotarria biraka indarrean ibiliz Zerain jasangarri baten bizi-

tzeko.

Gure esku dago. Zure esku dago. Haren esku dago, batik bat NIRE ESKU DAGO.



Olatza Sagardotegia

Joxe Antonio Iparragirre

20214 Zerain

Tel: 943 801 757



Ali Baba eta 40 lapurrak Zerainen

HAUR ETA GURASO TALDEA HANDITZEN!!

Basarte Guraso Elkarte

Kaixo! 2012-2013 ikasturtea ere amaitu dugu. Aurten guraso berriak ditugu gure artean; Maddi, Kizkitza eta Ametsen familiak, ongi etorri!

Zer balorazio egiten duzue lehen urtea pasa ondoren ?

Ikasturteari dagokionean oso gustura gaude gure haurrek eskolan jaso duten hezkuntzarekin. Irakasle, guraso eta ikasleen artean oso harreman ona eta inplikazio handia dago.

Zer iruditzen zaizue basarte Guraso Elkarte ?

Urte osoan ekintza asko antolatzen dira eta oso talde aktiboa da. Bestalde, guraso elkarteko kideek beste talde askotan hartzen dute parte (Gipuzkoako eskola txikien elkarte, Goierriko eskola txikien elkarte, hezkuntza kontseilua, Kultur Elkarte,...). Lan egiteko gogoia daukanarentzat badago zer egina.

Nola aldatu da Zeraingo Eskola gure garaitik ?

Gure garaian Guraso Elkarerik ez zen arren, gure gurasoek ere lan asko egin zutek guk Zeraingo Eskolan ikasi ahal izateko.

Gogoan dugu oraindik nola izan ginen irakasle, guraso, eta ikasleak Bidanian ospatu zen lehen Gipuzkoako Eskola Txikien egunean.

Gure eliz atariko gela garai haietatik hirukoiztu egin da eskolaren espazioa. Garai artan Kontxi zen irakasle bakarra eta gaur egun ikasle adina irakasle daude.

Taxi zerbitzua, jangela, zaintza,... eskaintza zabalago bat eskaintzen du gaur egungo eskolak.

Azken urteetako talde haundiena elkartu gara aurten, ea aurrera begira ere horrelaxe jarraitzen dugun!

Guraso elkarteak beti bezala jarraitzen du hainbat koordinazio-guneetan parte hartzen: herriko kultur etxean, Gipuzkoako Eskola Txikien Koordinakundean, Goierriko Eskola Txikien Koordinazio gunean, Zeraingo udaleko hezkuntza batzordean eta nola ez, eskola kontseiluan eta behatokian.

Aurten, arduretan aldaketak egiteaz gain (2 urtez behin egiten dugun bezala), elkartearen estatuto orokorretara egokitu gara Eusko Jaurlaritzan.



Maddi, Kizkitza, Amets, Aimar, Libe, Bidatz, Andoitz, Aitziber, Eider, Iban, Ainhoa eta Igor.

Lehendakaria: Amaia Etxeberria

Lehendakari-ordea: Aloña Salsamendi

Idazkaria: Maite Retolaza

Diruzaina: Amaia Junquera

Jangela arduradunak: Eva Centeno

Kulturako ordezkaria: Amaia Etxeberria

Zaintza arduraduna: Andoitz Apaolaza

Urtean zehar egin ditugun ekintzak ondorengoak dira:

Zeraingo Festak: Rokodromoa, puzgarria, jolasak, play-back-a... bazkari goxo-goxoa eta mozzorro egunean kirolari.

Baratza: Irailean egiten den azoka ekologikoan urtean jasotako uzta erakusgai jarri genuen.

Maiatzean berriz, EHIGE-k (Euskal Herriko Gurasoen Elkarte) antolatzen duen lehiaketan, baratzaren inguruko proiektua aurkeztu genuen haur, irakasle eta gurasoen artean eginga eta sari banaketan, aipamen berezia lortu genuen!

Kultur Astea: Marrazki lehiaketa antolatu genuen eta lanak egin ondoren bazkaria.

Talo eta gaztina jana: Aurten eguraldi txarra egin zuenez, gaztinak ezin izan genituen bildu, baina hala ere Galiziko gaztina ederrak jan genituen. Talogile profesionali oroigarri bana oparitu zitzaion.

Txontxongiloak: Urtetik urteera, emankizun politagoak ikusten ditugu Tolosako txontxongilotan, aurten Hego Ameriketatik etorri ziren batzuen saioa ikusi genuen.

Gabon kantak herri kaskoaz gain inguruko etxe batzuetan kantatu ondoren, diru poltsa bete genuen. Diru zati bat eskolako beharretarako erabili da, aurten fotokopiagailu berrirako, beste zati bat umeen igerilekuko kurtsiloko ordainketarako eta ea zenbat geratzen zaigun San Diegitokoei laguntzeko.

Abestu ondoren **Olentzero Maixunera** etorri zen oparitxo batzuk uztera.

Urte berriarekin, **dantzan** hasi ginen Andrea gure irakaslearekin.

Korrika: Gauean berandu eta euria izan arren, Ostaturtean bokadi-



Eki, Aizpea, Haitz, Igor, Aloña, Enara eta Mikel.

loak jan ondoren korrika irten ginen haur eta gurasoak.

Goierriko eta Gipuzkoako Eskola Txikien festetan ere izan gara, aurten Olaberrin, bertatik bertara.

Arkume jana: Udaberri amaieran egin ordeztu oraingoan ekainaren 1ean egin dugu gure urteroko arkume jana. Aurrez goseaz egiteko txangoa egin dugu; herriko mugarren azken etapa.

Kurtso amaierako asteburu pasa: Eguraldia lagun Errioxa aldean ibili gara, Encisoko parkean "Barranco perdido" izenekoan eta inguruko dinosaurio arrastoak ikusi ditugu bertan.

Udako denbora librea, uda aprobetxatzeko; gazte eta haur jolasean, eskulanetan, playback-ean, korrika, saltoka etab, urteroko martxan.

Guraso berriak etorri zaizkigu baina beste batzuei agur esan behar diegu; Aizpea eta Ekiren gurasoei eskerrikasko zuen ekarpenagatik!

Zer balorazio egiten duzue urte guzti hauen ondoren?

Balorazioa oso positiboa da. Elkarbizitza esperientzia polita izan da. Gurasoz osaturiko lagun taldean lana antolatu eta konpartitzeko aukera izan dugu. Gurasoak haurrez eta haurrek gurasoez gozatzeko gune sana. Baita haurrek haurrez eta gurasoek gurasoekin gozatzeko ere. Elkarlan handia egon da eta horrek asko aberasten du edonor. Segi horrelaxe!!!

Zer iruditu zaizue basarte Guraso Elkarte?

Talde dinamikoa, bizia. Gurasoen kezka, beharrak eta ikuspuntuak partekatu eta lantzeko beharrezko elkarte. Eskolarekin eta udalarekin batera, herriko hezkuntza proiektuaren zutabeetako bat da guraso elkarte. Horrekin batera, Gipuzkoako eta Euskal Herriko beste eskola txikiekin, gurasoekin eta ikasle-irakasleekin harremanean jarri gaituena ere izan da, tresna garrantzitsua da horretan ere.

Hauexek ba aurtengo ikasturteko gure gora-beherak!!



ALIBABA ETA 40 LAPURRAK

Zeraingo Eskolako Irakasleak

Badira urte batzuk Zeraingo Herri Eskola **adin aniztasunari erantzun** ahal izateko proiektu bidezko metodologia erabiltzen hasi zela. Horretarako Eskola Txikien sarean laguntza jasotzen dugu, bai irakasleen prestakuntzan eta baita eskolan burutzen diren unitate didaktikoak sortzerakoan ere.

Aurtengo urtarrilean proposamen potoloa jaso genuen: "Pelikula bat egitera animatzen al zarete?". Gure artean segituan sortu ziren kezkek, "gure eskola txiki samarra da, baliabide gutxi...", "ikasleak gazte samarrak...", "muntaia egiteko teknologia berrietan trebezia behar da...", baina kezkek kezka geure mailan egingo genuela pentsatu genuen.

Beraz, **azken xedea** ekainean geure **pelikularen estreinaldia** egitea izango zen.

Lehenengo **pelikula bat egiteko prozesua** zein zen jakin beharko genuela erabaki genuen, eta horretarako zer genekien ikusi genuen. Genekienetik abiatuz, **ikertuz**, gurasoei galde-tuz, ... prozesua osatzen joan ginen. Iban Garateren laguntza ere izan genuen ikasleen motibagarri eta informazio iturri.

Gure pelikula egiteko lehenengo pausua **gidoi on bat** idaztea zela konturatu ginen. Lantzen ditugun unitate didaktikoe-tan **testu mota** bat hartzen dugu **oinarri**. Kasu honetan pelikula baten gidoiaren ezaugarriak aztertzen hasi ginen.

Kasualitatez Irrien Laguneko aterpetxeko iragarki bat egitera gonbidatu gintuzten, eta horretarako gidoi bat pasatu ziguten. Gidoi hori ongi ikertu ondoren testu mota honen ezaugarriak eta atalak zeintzuk ziren ikasi genituen.



Aurreko asteetan munduan zehar bidaiatzen ibiliak ginen eta denon artean **adostu** genuen *Alibaba eta 40 lapurrak* pelikula egitea.

Marrazki bizidun batzuetatik abiatuz gidoia osatu genuenean pertsonaien banaketa egiteko **casting-a** egin genuen. Pertsonaiak nola antzestu eta moztaratu jakiteko **pertsonaiak deskribatu** genituen. Eta **eszena desberdinak** zeintzuk ziren ikusita, hauek ere deskribatu egin genituen.

Jarduera hauek **era globalizatu** batean egiten saiatzen gara, arlo eta hizkuntza desberdinetan txertatzen ditugu: gaztelania, plastika, musika, ingurune...

Behin prestaketa lanak burututa grabazioari ekiteko garaia iritsi zen. Gure kezkarik handiena hementxe zegoen: grabaketan eta muntaian. Horretarako laguntza handia jaso genuen, grabaketak Xabier Itxasoren aitak egin zituen, eta ondoreneko muntaia Jon Agirrek.




Gurasoen laguntza ere ezinbestekoa izan zen, moztaratuak, gauzak...ekarri.

Eduki eta jardueren aldetik oso aberasgarria izan bada ere, guk beste zerbait azpimarratuko genuke: ikasleen pazientzia eta kemena, beraien artean antolatze eta gauzak adosteko **gaitasuna...** Eta hauek ere **bizitzarako ezinbesteko baloreak** direla pentsatzen dugu.

Dena polita ez da izaten horrelako prozesu luzeetan, lana benetan nekagarria izan da eta eguraldiak ere ez digu gehiegi lagundu. Hala ere esperientzia ezin hobea izan da, ikasleek ez ezik irakasleok ere pila bat ikasi dugu. Denon oroimenean geratuko dela uste dugu, Serorategi aurreko azoka arabiarra, as-toak korrika, arrautzak lurrean, alfonbrak airean...

Eta nola ez Zeraingo Hollywooden eskutik egindako estreinaldia, hura zen hura glamurra! Eskerrikasko parte hartu duzun guraso eta herritar guztioi!



Zerain Parke Kulturala

www.zerain.com

Zeraingo turismo bulegoa

Herriko plaza z/g

20214 Zerain

Tel: 943 801 505

turismobulegoa@zerain.com

LEHEN ERE BAZIREN LAPURRETAK ZERAINEN

Ion Muñoa

Azken urte eta hilabeteotan, lapurreta dezente izan ditugu herrian. Etxe batean baino gehiagotan sartu dira lapurrak eta ahal izan dutena eraman. Sozidadean ere hainbatetan egin dituzte fetsxoriak. Eta inon sartu gabe ere izan dira lapurretak: gasoila kamioitik harrapatzea, baserri ondotik desbrozadora edo harritzko askak ebastea, baratzetik baldekada tomate otea, larretik ganaduarentzako "taka-taka" eramatea... askotarikoak izan dira norberarena ez dena norberarentzat hartzean oinarritutako ekintzak.

Halakoen aurrean, normala denez, segurtasun falta eta beldurra zabaltzen dira jende artean. Eta askotan entzun eta esaten ditugu "ez dakit zer ikusi behar dugun!" eta antzekoak. Inpotentzia eta indignazioa ere zabaltzen dira herritarren artean, batez ere lapurrak gaizkian harrapatuta ere, epailearen aurretik pasa eta kalera lasai nola itzultzen diren ikustean.

Jakina denez ordea, lapurretena ez da gaur goizeko kontua. Go-tzon Garatek jasotako euskal atsotitzen bilduman "lapur" hitza begiratu besterik ez dago hortaz jabetzeko; 54 badira guztira bildutako esaerak. Honatx horietako batzuk: "Dirurik ez du(e)na, ez da lapurren (ohoinen) beldur. Gona ta praka zarrak etxian, lapurrik ez zelatian. Juezak eta lapurrak, auzo makurrak. Zigortzen ezpaduk lapurra, ebakiko dik zintzurra". Baina atsotitzek erakusten diguten jakintza kolektiboaz haratago, Zeraingo nagusiekin hitz egitea nahikoa da lapurren kontuak entzuteko: ijitoek baserrietako kuxak eramaten zituztenekoak, soroetatik auzokoek ostutako uztenak, Gerra ostean gertatutakoenak... konturik ez da falta garai bateko lapurretez hizketan hastean.

Baina historiarekin oro har gertatzen den moduan, ahoz aho hainbat istorio txiki joaten dira belaunaldiz belaunaldi herri baten jakintza kolektiboa osatzen, baina beste batzuk bidean ahaztuta, galduta geratzen dira. Eta horietako batzuk, hiltunen buruetatik desagertzen badira ere, artxibo eta paper zaharretan gordeta geratzen dira zorionez. Horietako altxor txiki zokoratu batekin egin dugu topo urtekarirako beste lan bat egin nahian Zeraingo eta Segurako udal artxiboetan miatzen hasita: 1867an Zeraingo udaltxean gertatutako lapurreta bati buruzko dokumentua da; zehatzago esanda, lapurreta hari buruzko sumario judizial guztia jasotzen duen 20 orrialdeko txostena.

1867ko azaroaren 12an, orduan Zeraingo alkate zen Jose Lorenzo Telleria jauna udaletxera joan zen igandeko meza nagusia-

ren ondoren. Baina ezin izan zuen atea giltzaz ireki, nonbait barrutik tranka batekin itxita zegoelako. Orduan konturatu ziren leiho bat irekita zegoela eta handik sartu ziren udaletxe barrura. Behin barruan, udaletxeko areto nagusian zegoen armairua (artxiboko dokumentuak eta bestelako gauzak edukitzen omen zituen) irekita zegoela jabetu ziren. Begiratzen hasi eta armairuan gauza batzuk falta zirela ohartu ziren. Honakoen lapurreta salatu zuen epailearen aurrean alkate jaunak: "una onza de oro, un ovillo viejo y unas doce camisas de buen uso de lienzo del país que estaban destinadas para distribuir las entre los pobres del pueblo". Behin salaketa jarrita, auziak bere bidea jarraitu zuen Azpeitiko epaitegian, eta txostenean irakur daitezkeen hainbat auto, gutun eta deklarazioen ondoren, auzia artxibatu egin zuten lapurraren arrastorik gabe.

Egungo zeraindar gazte baten lenteekin begiratuta, lapurreta hau anekdota edo historiatxo xume bat baino askoz gehiago ez da ziurrenik, baina badira niri atentzioa eman didaten hainbat kontu. Lehenik eta behin, deigarria egin zait Zeraingo Udalak duela ia 150 urte herriko txiroei emateko 12 alkandora eduki izana (deigarria bezain pozgarria). Bigarrenik, atentzioa emateko modukoa da halaber, lapurreta egindako armairu berean udaletxeko artxiboa egon arren, paper bat bera ere ez eramatea. Hirugarrenik, harrigarria da garai hartan ere zer nolako burokratzia zegoen lapurreta txiki baten bueltan. Eta laugarrenik eta azkenik, garai hartako herri agintariek hainbat buruhauste eta ibilera pasa behar izan arren, azkenean lapurraren arrastorik gabe itxi behar izan zen kontua.

Hau da lapurreta hari buruz dagoen dokumentazioan jasotako bertsio ofizialekin berreraikitako istorioa. Baina seguruenik badira beste hamaika hari-mutur lapurreta haren bueltan, eta haietatik tira egiten joateak argi gehiago emango liguke ziurrenera. Galdera asko sortu zaizkit sumario judiziala irakurtzen nuen bitartean. Baina denetan azpimarragarria honakoa: zer egiten du 1867ko Zeraingo gertakari bati buruzko dokumentazioak Segurako udal artxiboan? Eta galdera hori erantzuten ahaleginduta, gogoratu naiz inoiz entzun izan dudala Gerra Zibilaren garaian, segurar batzuek Zeraingo herri-artxibotik hainbat dokumentu ostu omen zituztela. Ez dakit hori horrela ote den, eta horrela bada ere dokumentu hauek ebatsitakoak ote diren. Auskalo! Hala balitz ordea, paradoja ederra litzateke lapurreta bati buruzko dokumentuak ere lapurtzea!

Kontuak kontu, eta istorioak istorio, jarraituko dugu antzinako lapurreta hau ikertzen. Eta bitartean, ea lapurreta berririk ikertu beharrik ez dugun herrian!

HERRI IKUSEZIN HARTAN

Izar Foroni

Goierriko bihotzean, muino baten gailurrean badago herri txiki bat. 250 biztanle inguru izango ditu. Bi taberna besterik ez. Hura bezalako herri batek bizitako istorioen erdia ere biltzeko gai ez den museo bat. Bertako aitona-amonon izerdiaz aurrera atera ahal izan zen meategi bat eta euren ilobek erakitako oroitzapenak. Herritarrek oso maitea duten elkarteak eta ezberdintasun guztiak bateratzeko gai den herri plaza bat. Oraindik ere maiteagoa duten herri eskola; herria bera bezalakoa dena, txikia. Baina ezer baino garrantzitsuagoa. Baserri- eta artisauen produktuak saltzeko denda bat. Bertako kirolariek gozatzen duten frontoi bat eta herriko txikiak itsasoratzen dituen parke bat. Askorentzat gutxi. Baina belardiak eta larreak soberan ditu. Edonon aurki dezakezu lasaitasuna. Edonon duzu maitasuna. Bertan edonon entzuten baita txorien txio-txioa. Zortea izanez gero katagorri edo orkatzen bat aurki dezakezulako. Baina ardiak, ardiak herri honek duen paisaia zoragarriaren barne dira. Edonon daude. Udaberriko lore eta berde biziari pinporta txuri ederrak batuz. Aizkorriren itzalean eta Txindokiren begietan dago askorentzat ikusezina den herri hau. Baina argi dago begi horiek inoiz ikusi ez dituztela herri honetako parajeak, bertako jendea. Beren arbasoen irizpideari jarraituz bertan bizi izan direnak, herriaz maitemindu eta bertara etorri zirenak edo uneoro bertan egon nahiko luketenak. Denak bat dira, herri bat. Euren amets eta ilusioekin sortutako herria da hura eta horregatik da hain handia, uneoro hazten delako. Elkarri laguntzeko prest dauden lagun eta ezagunek osatzen dute familia erraldoi hori. Askok jakin ez arren, gauza txikiez osatzen direlako handiak. Harro



Marraskia: Izar Foroni

nago familia horren partaide izateaz eta herri honen oroitzapenak betirako iraungo du nire bihotzean. Bere esentzia urteetan zehar denon barne izango delako. Etorriko direnen eta joan zirenen oroitzapenean. Lehen ametsetan eta azken arnasetan. Denon bihotzean. Handiak garelako, eta izaten jarraituko dugulako. Zenbakiak hori besterik ez dira, zifra soilak. Baina bateratuta dabiltzan bihotzak garaiezinak dira eta bizi-lagun maiteok, hori da handi egiten gaituena.

TXIRBIL AROZTEGIA
 Leihoak eta iskilarak neurrira
 Ateak, zoruak, armairuak,...

txirbil@txirbil.com
 Tel: 943 800 208

Biomasa bidezko berokuntza
 Pelleta, egurra, ezpalak
 Energia berriztagarriak




axalko
 Egurrezko Bizikletak
www.axalko.com

GIZARTEAREN ERAGINA GUGAN

Oihane Lazkanoiturburu

Gaur egun, jende guztiak gizarte honen eragina jasaten du, nahiz eta askotan ez iruditu. Eragin hori, hainbat faktoreen bitartez jasane daiteke. Hala nola, telebista da eraginkorrena eta ohartu gabe eragiten digun eragile bakarrenetakoa. Orain etortzen zaigun galdera ohikoetako bat, haxe izan liteke; Baina nolatan deritza idazle honek halako zerbait?. Erantzun garbi eta azkarra. Telebistak igortzen dituen hainbat eta hainbat iragarkitan, esate baterako, emakume nahiz gizonaren gorpua figura argal eta ziztrin batetan oinarritzen da eta horrela, halakoak izatera bultzatzen gaitu, anorexia bezalako gaixotasunak areagotuz eta sustatuz; nahiz eta, honek izan beharko genukeenaren itxura tamalgarri bat azaldu. Geuk ez dakigu zer den gizena egotea, kontzeptu hori iruzurren bitartez barneratu baitigute. Gizena egotearen eta pisuan egotearen arteko aldea imajina ezinezkoa da.

Bestalde, iragarkiez at, beste hainbat eta hainbat elementuk betetzen dute egoera honetara iristeko bidea. Teleberria adibide aipagarria litzateke; bertan, guganaino iristen diren berri gehienek hilketa edo gerratez hitz egiten baitute eta ez herri baten aurrerapausoez (badirudi gizarte hau zoritxarrez gainezka dagoela). Ikuspegi honek, ultrabiolentziara bultzatzen gaitu eta azkenik ohikoak bihurtzen dira horrelako kasuak geure inguru edo bertan suertatzea; hainbat kalte sortuz eta gizartea okerre-rantz eramanez. Gainera, film nahiz serie edota telesaioretan betikoak izango dira kriminalak. Badirudi kriminaltasuna azalaren kolorearen baitan dagoela eta salbatzailearen figura lpar Ameriketara. Hala, oharkabeko manipulazio maila bat bermatzen dute gudan. Hori nahikoa da; soilik nahikoa pertsona bat bere izate soilagatik diskriminatzeke.

Beraz, gerrak daude, hilketak, gaixotasunak, suizidioak, itxurakiko ardura, arrazakeria... eta bitartean geure gurasoak guretzako playstation batean pentsatzen daude; indarkerian oinarritutako jokoetan hain zuzen. Hala, geure munduan murgiltzen gara. Haxe da lagunok ignorantzi kontzeptua definitzea. Ezezkoa dionak, badauzka arrazoiak (badaki zerren aurka ari den). Baiezkoa dionak ere berdin, bere argudioak ditu. Eta ignoranteek? Esaten den moduan "la ignorancia es lo más atrevido".

Azkenik droga gerturatzen zaigu eta jada jakinduriarik gabeak garenez segituan onartzen dugu geure artean askatasun falta bat sortuz geure barrenean; dependentzia alegia. Hala gizartea-

ren aurrerakuntzan jardun beharrean droga kontsumitzen edo lapurretak gauzatzen ditugu berau lortzeko; droga, droga eta droga kontsumoan bihurtzen delarik geure ingurua. Laurogeigarren hamarkadara jotzen badugu segituan ohartuko gara euskal gazteriak duen jakinduri mailaz eta politikoki dagoen indarraz; hainbaten buruan soluzioak suertatzen dira, haietako bat: DROGA. Estatuak droga zabaltzen du Euskadi, gaur egungo Euskal Herri osoan eta bere "soluzioak" eragin nabarmen bat bermatzen du gazterian. Hala beraien eskuetan erortzea lortzen dute gaur egungo egoerara iritsi arte. Baina kontuz! Mundua jatera goaz eta! jajaja

Gogoratzen al zarete herriko plaza nahiz parkean korrika eta jolasean ibiltzen ginen garai haietaz? Bai, baina garaia aldatu egiten dira onerako edo txarrerako. Orain koadrilatara mugatzen dugu harremana herriko jendearekin lotura deuseztatuz. Lokaletan sartzen gara eta honek gazte edo bizirik gabeko herria dirudi. Egoera tamalgarria aizue. Bestalde herriko komertzio txikiak itsusiak dira; ezta ala? Eta beraz, nahiago dugu mcdonalds edota horrelako multinazionalen adizioa sortzen duten eta janari kaltegarriak dituzten lekuetan jan herriko salmenta txikiei uko eginez. Horrela multinazionalak poltsikoak betetzen jarraitzen dute. Hala, ez dugu kirolak egiten, lokalean sartu, playstation bezalako tramankuluetan ibili eta janari higuinaria jan; nola ez nuke markadun oinetakoekin "elchabal" dotore-dotore, jakin gabe enpresa honek Bangladesh-ko haurrak esplotatzen dituela halako itxuradun oinetakoekin poltsikoak betetzeko. Honek konponbide erraz eta garbia du. Kalera atera, multinazionalak uko egin eta komertzio txikiak bultzatu. Ikus dezatela nahi ez dutenek euskal gazterien indarra. Herria batu, ukabilak altxatu eta elkar komunikatu. Gazteen artean sozialak egin; gazte, zahar nahiz helduak denok batera dena aurrera eramanez. Horrela leku jakin bat lortu, hitza bitarteko delarik, edota okupazioa praktikatu. Hala geure ideiak gestio-natzeko eta materiala gordetzeko leku jakin bat edukiko dugu. Okupazioa ez da objetibo bat tresna bat baizik geure harreman nahiz ideiak sustatzeko.

Hauek denak, gaur egungo egoerak dira, konponbidedunak eta geure baitan daudenak, gainera. Beraz, zeren zain gaude egoera larri hau ekiditeko?

ERPURUTXO

Maialen Alustiza

Bazen behin, duela hiru urte, zazpi seme-alaba zituzten familia behartsu bat. Seme-alabetatik txikiena oso txikia zen, erpuru bat bezalaxe eta horregatik, Erpurutxo deitzea erabaki zuten. Basozainak atsedetik gabe lan egiten zuten bere seme-alabei jaten emateko, baina bere lana batzuetan ez zihoan ondo eta batzuetan, afaltzeko, umeak tipula eta ogi pusketa batekin adostu behar izaten zuten.

Baina iritsi zen eguna dirurik ez zutenekoa eta ezin zuten ezer erosi. Orduan, basozainak seme-alabak hirian utzi beharko zituela esan zion emazteari eta amari oso ondo iruditu zitzaion, umeak gorroto baitzituen. Baina ez ziren jabetu Erpurutxo dena entzuten ari zela eta orduan, Erpurutxori ideia bat otu zitzaion: etxetik kanpora atera eta eskubete harri hartu zituen, praktetako patrikan sartu eta ohera bueltatu zen.

Hurrengo egunean, basozainak umeak esnatu eta hirira laguntzeko eskatu zion, lan hobea aurkitzeko asmotan. Hirirako bidean, Erpurutxok harriak bota zituen lurrera gero etxera itzul zintezkeen. Aitak alde egin zuten umeak utzi eta gero, baino bera ere galdu egin zen. Erpurutxo eta bere sei anai-arrebak oinez etxera bidean zihoazenean harri batek dirdiratu egin zuten, denak txundituta geratu ziren eta bat-batean harria mugitu egin zen, landare erraldoi bat zen!

- Zer da hori? – galdetu zuten anai-arrebetako batek.
- Ez dakit – erantzun zion Erpurutxok.
- Zein zarete? – galdetu zuten ahots bitxi batek. Jack zen, Jack eta babarrun magikoa izeneko ipuinekoa.
- Erpurutxo naiz.
- Eta zer egiten duzue hemen? Hau nire ipuina da!
- Ui barkatu, barkatu! Bagoaz.-Erantzun zuten Erpurutxok.

Bide horretatik jarraitu zuten eta azkenean etxera iritsi ziren. Han zegoen beraien ama baina ez zen pozik jarri beraiek ikustean eta berriro hirira eramanean zituen bertan geratzeko esanez. Baina orduantxe emaztea senarra falta zuela konturatu zen eta beraien seme-alabei aurkitzen laguntzeko eskatu zion, saria izango zutela aginduz. Denak aita aurkitzera joan ziren eta zazpiei asko gustatu zitzaion etxe batean geratu ziren: Txokolatezko etxea zen. Denak joan ziren txokolatezko etxea jatera eta dena jan zutenean bi ume agertu ziren, Hansel eta Gretel.

- Zer egin duzue etxearekin? – galdetu zuten Hanselek.
- Txokolatezkoa da, ez duzu ikusten? ez da izaten horrelako aukerarik askotan.- erantzun zion Erpurutxoren anai batek azkeneko txokolate zatia jaten zuen bitartean.
- Baina hori guk egin beharko genuke! Gure ipuina da, badaki-

Ezagutzen al duzue Erpurutxo ipuina? Ondorengo ipuina Erpurutxori buruzkoa da baina ez ezagutzen duzuen betiko ipuina, baizik eta istorio misteriotsu eta dibertigarria.

zue? Eta non dago sorgina? – galdetu zuten Gretelek.

- Ups... esaten nuen ba zati hori oso txarra zegoela... uste dut nik jan dudala...- erantzun zuten Erpurutxoren arreba batek bota egitera beste leku batera zihoan bitartean.
- Bua... joan zuek oraintxe bertan nik zuek jan baino lehenago!- erantzun zuten Hanselek oso haserre.
- Bai, bai lasai bagindoazen...- esan zuten Erpurutxok beldurtuta korrika zihoazen bitartean.

Denek aitaren bilaketarekin jarraitu zuten baina dagoeneko etxera joanda zen. Bidean, gaztelu erraldoi batekin aurkitu ziren baina bertan erraldoi beldurgarri bat bizi zen eta atea jo zuten.

- Zein da? – galdetu zuten andere zahar batek.
- Kaixo anderea. Geratu gaitezke bertan lo egiten? Ez dugu etxerik...- esan zuten anaietako batek.
- Ez! Hemen erraldoi beldurgarria bizi da.
- Mesedez, ez dugu etxerik.
- Beno ba ezkutatu egin beharko zaituztet...- erantzun zuten andereak.

Zazpi haurrak ohera joan ziren eta erraldoi beldurtsua oso haserre iritsi zen eta orduan umeen usaina hartu zuten. Erraldoi beldurtsuari gizakiak gaztelu barruan zeudela iruditu zitzaion eta umeen gelara joan zen baina Erpurutxok hots bat entzun zuten eta oihuka hasi zen, orduan, haur guztiak beldurtu eta korrika hasi ziren gazteluaren zirriztu guztiak pasaz eta dorre baten gainera heltzean zubi baten bidez beste aldera pasa ziren, non, erraldoi gaiztoak ezin izan zuten iritsi. Orduan, erraldoia erori eta desagertu egin zen. Umeek erraldoiaren oinetako bat hartu, bertan sartu erraldoiak altxor guztiak eta etxera joan ziren. Gurasoak ez ziren pozitu umeak ikustean baina altxorra ikustean segituan hasi ziren pozik saltoka, baina anai-arrebek ihes egin zuten altxor eta guzti gurasoeekin egon nahi ez zutelako.

- Ez zenuten nahi gu etxean egoterik, ezta? – esan zuten Erpurutxok.
- Ez... Etorri umeak asko maite zaituztegu eta! –esan zuten amak ironiaz.
- Agur ama, agur aita bagoaz.- Esan zuten anai-arrebetako batek, horrela gurasoei azken hitzak esanez.

Anai-arrebak munduko aberatsenak bihurtu ziren, gaztelu erraldoi bat eraiki zuten zazpientzat eta oso pozik bizi izan ziren. Handiak egitean, Erpurutxo printzesa eder batekin ezkondu zen eta hiru seme-alaba eduki zituzten, bat Erpurutxo txikitan zen bezain txikia jaio zen eta horregatik jarri zioten Erpurutxo izena berari ere.

“Atez atekoa”

1.- Jaso burua ta begirada
ta abittu ttirri-ttarra
zabor poltsetan ez da kabitzen
herri baten deiadarra
gure inguruneak badauka
birziklatzeko beharra
ta horretarako ezinbesteko
esfortzua eta indarra

2.- Natura zaintzea ta osasuna
batzuk degu erabaki
baino jendeak ez du ikusten
gainean dauka tapaki
birziklatzea eta zaintzea
denez bizitzaren zati
denon bete beharra degunez
hasi gaitezen poliki

Oihane Lazkanoiturburu

3.- Gauza guztietan bezalaxe
indarra denez nagusi
birziklatzeko ezinbesteko
dugu gogoa ta guzi
erraustegi kutsagarri hoiek
ez ditugu nahi ikusi
horretarako denon artean
bertan-behera utzi arazi

4.- Kutsadura eta zabor mailak
nabarmen egin du gora
protesta eta kexu hoiekin
galtzen ari gera denbora
gure erosotasunagatik
ez goazenez inora
zaborra erraustegietara
ta bitartean gu nora?

“Zeraingo festak”

Zeraingo festak dira
Aprobetxatzeko
Denak elkartu eta
Denok jolasteko.

Baimena guk badugu
Kalera joateko
Lagunekin jolastu
Ta dibertitzeko.

Jolas berriak asmau
Denok jolasteko
Lagunekin batera
Ondo pasatzeko.

Gaueko festak dira
Denok ospatzera
Lagunekin batera
Goazen jolastera.

Liliana Santos

DOINUA: Ama begira zazu

Gazteak oso ondo
Zeraingo plazan
Alkatea oso pozik
Ta jendea dantzan.

Gazteak beti pozik
Gazteak edaten
Hurrengo egunean
Ohera joaten.



Ormazabal Garraioak

Tel: 680 365 181

DENBORAPASAK

Irati Saez de Egilaz

AIZKORRI BAILARAKO HERRIAK

Zerain, Mutilo, Segura, Zegama, Idiazabal

I	F	G	Z	E	G	A	M	A	K
X	D	R	D	L	C	Y	L	R	F
V	Z	I	G	M	S	H	C	P	W
M	V	A	A	C	T	Y	U	O	Q
A	M	M	S	Z	E	R	A	I	N
R	W	U	D	H	A	K	L	C	T
U	G	T	T	G	O	B	G	N	C
G	H	O	J	I	P	J	A	D	N
E	C	L	O	U	L	P	Ñ	L	U
S	H	I	K	Ñ	O	O	S	Y	D

HUTSUNEAK BETE

Plazara

Plazara Euskara plazara
Euskaldun irakasle eta dantzara,
..... dantzara geure herriaren geroa bait gara

Bai arreba ta
Guk ere herri bat izan nahi!
Gure lurak laiatuz eta
Udaberriko emaitzaren
Herri jakintza nahi dugu
Eta herriarentzat nahi

..... Euskara plazara
Euskaldun eta ikasleok dantzara,
Plazara geure herriaren geroa bait


Ez erderarik ez!
Euskadin giñanez
Denok euskara bakar bat dugu
Bizigiro ta jakintza bidez
..... berri bat nahi
Herri bakoitzak beretik emanez

Plazara Plazara
..... Irakasle eta ikasleok dantzara,
Plazara dantzara herriaren geroa bait gara

ASMAKIZUNAK

1)

Zenbat karratu daude irudi honetan?



2) Baserrian jaioa baserrian hazia
Eta moztzen duenari bustitzen dio begia
ZER DA?

3) Bi mendiren artean tiro zatatsua,
Sudurra itxiazten duen tiro usaintsua.
ZER DA?

4) Eguzkia eta euria batera
Zazpi koloreak kalera
ZER DA?

5) Matxin dut izena eta salto egiten du
Zelaian nabil oso azkar eta arin
ZER DA?

Aizpea, Eki, Ortzi, Unai, Uxue, Eneritz, Itxaso, Ekain, Julen, Nora, Harriet, Oihan, Araitz, Irati, Maddi, Kizkitza, Amets

ASMAKIZUNAK

1

Bai ondo bera ateratzen de-
nean.
Ederto egoten da manga mo-
tzean.
Bai handia dena benetan.
Gehienetan ateratzen da.

2

Gaiztoa zen.
Aspaldi zeuden.
Nabegatu egiten zuen.
Txapela daukate.

3

Salto egiten du.
Berdea da.
Hankak luzeak ditu.
Hegoak ditu.

4

Lau hanka ditu.
Buztana dauka.
Sudurra dauka beltza.
Eta belarri luzeak dauka.
Eta etxeko txabolan bizi da.

5

Lau hanka dauzka
Belarriak dauzka luzeak
Buztan borobila dauka
Hortzak daukate
Azenarioa jateko.

6

Bera salto eta salto ibiltzen da
Korrika ere bai
Jan egiten dira
Baina ere bai
Korrikan alde egiten dute.

7

Letaginak daukate
Indartsua da
Azkarra da
Beldurra ematen du.

8

Haizea dabil firin firin
Zuhaitzak mugitzen ari
Marroiak dira
Zer erortzen da?



BERTSOA

"Zerain ederrena"

Doinua: Triste bizi naiz eta

Zerain polita da
Ta dago Goierri
Parkean ibiltzen da
Jolasean arin
Plazan dago artea
Herriaren erdin
Gustora bizi gara
Hauxe da Zerain.



Zerain (Gipuzkoa) - Tfnoa. 943 800 100
www.lumagorri.es

ATALA (ESKUIN)




LumaGorri

Dastatu desberdintasuna



JOXE TELLERIA, S.L.
Aseguruak . Korreduria

Plaza Erauskin, 2
20200 BEASAIN (Gipuzkoa)
Tlf.: 943 882 643 / 943 887 155
Fax: 943 887 155